A EREDUA / MODELO A

ADMINISTRAZIO OROKORREKO TEKNIKARIA

Ezagutza teorikoen proba

A) atala

TÉCNICO/A DE ADMINISTRACIÓN GENERAL

Prueba de conocimientos teóricos


Apartado A)

Erref. - Ref.: OP2018/02

KONTUZ: Erantzunen Orriko 240. galderan, adierazi zein ariketa eredu egokitu zaizun: “A” aukera.

ATENCIÓN: Indique en la pregunta nº 240 de la Hoja de Respuestas el modelo de cuestionario que le ha correspondido: opción “A”.

ERANTZUNEN ORRIA / HOJA DE RESPUESTAS



Galdera bakoitzeko launa erantzun daude, aurretik letra hauek dituztenak: “A”, “B”, “C” eta “D”. Erantzun zuzena, ordea, bat bakarra da. Erantzunen Orrian ontzat eman duzun erantzunari dagokion letra markatu behar duzu, bertan erakusten den bezala.

Aurrena, galdera orrian erantzun, eta gero Erantzunen Orrian kopiatu ezazu egin duzun aukera hori. Kontuz ibili kopiatzerakoan, eta gaizki markatu baduzu, eskatu laguntza zaintzaile bati.

EZ AHAZTU: Erantzunen Orrian markatu aukeratu duzun erantzuna. Erantzun bat bakarra markatu.

Azterketaren bukaeran erreserbako 5 galdera daude eta aurreko galderaren bat baliogabetuz gero bakarrik ebaluatuko dira.

Azterketako galderak: 1etik 50era
Erreserbako galderak: 51tik 55era

En cada pregunta hay 4 posibles respuestas, precedidas de las letras "A”, “B”, “C” y “D”, de las que sólo una es correcta. Debe marcar en la Hoja de Respuestas la letra que corresponda a la solución, tal como se señala en la misma.

Conteste primero en el cuadernillo y copie después la opción seleccionada en la Hoja de Respuestas. Tenga cuidado al copiar y si se equivoca, pida ayuda a un/a cuidador/a.

RECUERDE: marque la solución en la Hoja de Respuestas y marque sólo una respuesta.

El examen tiene al final del ejercicio 5 preguntas de reserva que sólo se evaluarán en el supuesto de anularse alguna pregunta.

Preguntas de examen: de la 1 a la 50
Preguntas de reserva: de la 51 a la 55

KONTUZ: Ezagutza teorikoen probaren A) atalean erantzun okerrek penalizazioa dute (1/3)

ATENCIÓN: En la prueba de conocimientos teóricos apartado A) las respuestas erróneas penalizan (1/3)

OSO GARRANTZITSUA

LAUKITXOAK ONDO MARKATU



MUY IMPORTANTE

MARQUE CORRECTAMENTE LAS CASILLAS



EZ PASA ORRIA, PASATZEKO ESATEN DEN ARTE!!!

¡¡¡NO VUELVA LA HOJA HASTA QUE SE LE INDIQUE!!!

Irun, 2019-06-14

Irún, 14-06-2019

1. Bitarteko funtzionarioak dira karrerako funtzionarioei dagozkien zereginak egiteko izendatutakoak, hauetako bat gertatzen denean:

A - Titularrak betirako ordezteko denean.
B - Plaza hutsak daudenean, baldin eta karrerako funtzionarioekin bete badaitezke.
C - Aldi baterako programak betetzeko denean, programen iraupena edozein dela ere.
D - Zeregin kopuru handiegia edo zeregin-pilaketa dagoenean; gehienez ere sei hileko epe baterako izango da, hamabi hileko tarte batean.

2. Zein legek erregulatuko du Justizia Administrazioaren jardueraren ondoriozko Estatuaren ondarezko erantzukizuna?

A - 39/2015 Legeak, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearenak.
B - 40/2015 Legeak, Sektore Publikoko Araubide Juridikoarenak.
C - Auziperatze zibileko legeak.
D - 6/1985 Lege Organikoak, uztailaren 1ekoak, Botere Judizialarenak.

3. Zein da erantzun zuzena foru diputatuei dagokienez?

A - Foru diputatuek dagozkien departamentuak zuzentzen eta ordezkatzen dituzte.
B - Ez dute nahitaez Diputatuen Kontseiluko kide izan behar.
C - Foru diputatuaren kargua ez da bateragarri izango zinegotzi izatearekin.
D - Diputatuen Kontseiluaren erabakiaz izendatu eta kargugabetuko dira.

4. Autonomia Estatutuaren arabera, non daude jasota Euskal Herriko herritarren oinarrizko eskubideak eta betebeharrak?

A - Euskal Herriko Autonomia Estatutuan bertan.
B - Eusko Legebiltzarrak onartutako legeetan.
C - Konstituzioan.
D - Euskal foru zuzenbidean.

1. Son funcionarios interinos los nombrados para el desempeño de funciones propias de funcionarios de carrera, cuando se dé alguna de las siguientes circunstancias:

A - La sustitución permanente de los titulares.
B - La existencia de plazas vacantes cuando sea posible su cobertura por funcionarios de carrera.
C - La ejecución de programas de carácter temporal, cualquiera que sea su duración.
D - El exceso o acumulación de tareas por plazo máximo de seis meses, dentro de un periodo de doce meses.

2. La responsabilidad patrimonial del Estado por el funcionamiento de la Administración de Justicia se regirá:

A - Por la Ley 39/2015, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.
B - Por la Ley 40/2015, de Régimen Jurídico del Sector Público.
C - Por la Ley de Enjuiciamiento Civil.
D - Por la Ley Orgánica 6/1985, de 1 de julio, del Poder Judicial.

3. ¿Cuál de las siguientes afirmaciones en relación a las Diputadas y Diputados Forales es cierta?

A - Dirigen y representan los Departamentos de los que son titulares.
B - No deben ser necesariamente miembros del Consejo de Gobierno Foral.
C - Su cargo es incompatible con el de concejal/a.
D - Su nombramiento y separación se realizará por Decreto Foral del Consejo de Gobierno Foral.

4. Los derechos y deberes fundamentales de los ciudadanos y ciudadanas del País Vasco, según el Estatuto de Autonomía, son los establecidos en:

A - El propio Estatuto de Autonomía del País Vasco.
B - Las leyes que apruebe el Parlamento Vasco.
C - La Constitución.
D - El Derecho foral vasco.

5. Hizkuntza eskakizuna derrigorrezkoa ez den artean:

A - Ez da baloratuko lanpostuak betetzeko prozeduretan.

B - Bakar-bakarrik balioko du euskara baloratzeko, lanpostuak betetzeko prozesuetan.

C - Bakar-bakarrik balioko du merezimendu gisa euskararen ezagutzari emango zaion balorazioa erabakitzeko, bai lanpostuak betetzeko prozesuetan, bai kanpo hautapenean.

D - Bakar-bakarrik balioko du euskara baloratzeko, kanpo hautapenean.

6. Hauetako zein EZ da Europar Batasuneko erakundea?

A - Europako Parlamentua.

B - Europako Kontu Auzitegia.

C - Europako Batzordea.

D - Giza Eskubideen Europako Auzitegia.

7. Hierarkia normatiboari dagokionez, Europar Batasunaren Zuzenbidean:

A - Europar Batasunaren Tratatuak balio juridiko handiagoa du Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuak baino.

B - Europar Batasunaren Tratatuak balio juridiko txikiagoa du Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuak baino.

C - Europar Batasunaren Tratatuak eta Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuak balio juridiko berbera dute.

D - Europar Batasunaren Tratatua araudi europarraren gailurrean dago, baita 2000ko abenduaren 7an onartu zen Europar Batasunaren Oinarrizko Eskubideen Gutunaren gainetik ere.

8. Zerga urraketa eta zigorren erregimena arautzen duten arauek:

A - Atzeraeragina izango dute irmoak diren egintzei dagokienez, horien aplikazioa interesdunarentzat mesedegarriagoa denean.

B - Atzeraeragina izango dute irmoak ez diren egintzei dagokienez, horien aplikazioa interesdunarentzat mesedegarriagoa denean.

C - Ez dute atzeraeraginik izango.

D - Atzeraeragina izango dute beti.

9. Nori dagokie legegintza ekimena?

A - Gobernuari, Kongresuari eta Senatuari.

B - Gobernuari, Herriaren Defendatzaileari eta Gorte Nagusiei.

C - Kongresuari, Senatuari eta Gobernuko presidenteari.

D - Gobernuari eta Herriaren Defendatzaileari.

5. En tanto el perfil lingüístico no fuera preceptivo:

A - No se valorará en los procedimientos de provisión de puestos de trabajo.

B - Servirá únicamente para la valoración del euskera en la provisión de puestos de trabajo.

C - Servirá para determinar la valoración que, como mérito, habrá de otorgarse al conocimiento del euskera, tanto en la provisión de puestos de trabajo como en la selección externa.

D - Servirá únicamente para la valoración del euskera en la selección externa.

6. ¿Cuál de las siguientes NO es una Institución de la Unión Europea?

A - El Parlamento Europeo.

B - El Tribunal de Cuentas Europeo.

C - La Comisión Europea.

D - El Tribunal Europeo de Derechos Humanos.

7. A nivel de jerarquía normativa en el Derecho de la Unión Europea:

A - El Tratado de la Unión Europea tiene mayor valor jurídico que el Tratado de Funcionamiento de la Unión Europea.

B - El Tratado de la Unión Europea tiene menor valor jurídico que el Tratado de Funcionamiento de la Unión Europea.

C - El Tratado de la Unión Europea y el Tratado de Funcionamiento de la Unión Europea tienen el mismo valor jurídico.

D - El Tratado de la Unión Europea está en la cúspide normativa europea, incluso por encima de la Carta de los Derechos Fundamentales de la Unión Europea de 7 de diciembre de 2000.

8. Las normas que regulen el régimen de infracciones y sanciones tributarias:

A - Tendrán efectos retroactivos respecto de cualquier acto firme, cuando su aplicación resulte más favorable para el interesado.

B - Tendrán efectos retroactivos respecto de los actos que no sean firmes cuando su aplicación resulte más favorable para el interesado.

C - No tendrán efectos retroactivos.

D - Tendrán efectos retroactivos en todo caso.

9. La iniciativa legislativa puede provenir de:

A - El Gobierno, el Congreso y el Senado.

B - El Gobierno, el Defensor del Pueblo y las Cortes Generales.

C - El Congreso, el Senado y el Presidente del Gobierno.

D - El Gobierno y el Defensor del Pueblo.

10. Hauetatik zein EZ da Gipuzkoako Batzar Nagusien eginkizun bat?

A - Araugintza ahalmena gauzatzea.
B - Gipuzkoako Lurralde Historikoaren ordezkari legala izatea.
C - Diputatu nagusia hautatzea.
D - Aurrekontuak onartzea.

11. Eusko Jaurlaritzak:

A - Politika-helburu orokorrak finkatu eta Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioa zuzentzen du.
B - Legebiltzarraren legeak eta legegintzazko dekretuak aldarrikatzen ditu.
C - Ezin du inoiz lehendakaria bere zereginak egitetik kendu.
D - Sailburuak izendatu eta kargugabetzen ditu.

12. Autonomia estatutuak…

A - Gorte Nagusiek onartuko dituzte, lege arrunt gisa.
B - Autonomia-erkidego bakoitzaren oinarrizko arau instituzionala dira.
C - Dagokion Autonomia Erkidegoko biltzar legegileak onartzen ditu
D - Konstituzioaren VIII. tituluko arauak alda ditzakete.

13. 2/2015 Foru Araua, martxoaren 9koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerakoa, ez da aplikatuko:

A - Foru Administrazioan.
B - Lurralde Historikoko tokiko entitateetan.
C - Foru sektore publikoko fundazioetan.
D - Merkataritzako foru sozietateetan.

14. Administrazioa behartua dago ebazpena berariaz ematera eta jakinaraztera:

A - Preskripzio kasuetan izan ezik.
B - Prozedura iraungitzen den kasuetan izan ezik.
C - Eskaeran atzera egiten den kasuetan izan ezik.
D - Prozedura guztietan.

15. Zer eskatzeko jo dezake edozein herritarrek, hala badagokio, Konstituzio Auzitegira babes errekurtsoaren bidez?

A - Politika sozial eta ekonomikoa gidatzen duten printzipioak babesteko.
B - Konstituzioaren I. tituluan aitortutako oinarrizko eskubide eta betebehar oro babesteko.
C - Konstituzioan aitortutako eskubide oro babesteko.
D - Oinarrizko eskubideak eta askatasun publikoak babesteko.

10. NO es una función de las Juntas Generales de Gipuzkoa:

A - Ejercer la potestad normativa.
B - Ostentar la representación legal del Territorio Histórico de Gipuzkoa.
C - Elegir al Diputado o Diputada General.
D - Aprobar los presupuestos.

11. El Gobierno Vasco:

A - Establece los objetivos políticos generales y dirige la Administración del País Vasco.
B - Promulga las leyes del Parlamento, así como los Decretos Legislativos.
C - No puede en ningún caso suspender al Lehendakari para el desempeño de sus funciones.
D - Nombra y cesa a las Consejeras y Consejeros.

12. Los Estatutos de Autonomía:

A - Se aprueban con rango de ley ordinaria por las Cortes Generales.
B - Son la norma institucional básica de cada Comunidad Autónoma.
C - Se aprueban por la Asamblea legislativa de la Comunidad Autónoma.
D - Podrán modificar preceptos del Título VIII de la Constitución.

13. La Norma Foral 2/2015, de 9 de marzo, para la igualdad de mujeres y hombres, no se aplicará a:

A - La Administración Foral.
B - Las entidades locales del Territorio Histórico.
C - Las fundaciones del sector público foral.
D - Las sociedades mercantiles forales.

14. La Administración está obligada a dictar resolución expresa y a notificarla:

A - Excepto en los casos de prescripción.
B - Excepto en los casos de caducidad del procedimiento.
C - Excepto en los casos de desistimiento de la solicitud.
D - En todos los procedimientos.

15. Cualquier ciudadano podrá, en su caso, acudir al Tribunal Constitucional en recurso de amparo:

A - Para la tutela de los principios rectores de la política social y económica.
B - Para la tutela de cualquier derecho y deber fundamental del Título I de la Constitución.
C - Para la tutela de cualquier derecho reconocido en la Constitución.
D - Para la tutela de sus derechos fundamentales y libertades públicas.

16. Zer jaso behar da administrazio prozedurak abiarazteko eskaeretan?

A - Jaso-agiria, aurkezpen-data eta ordua egiaztatzen dituena.

B - Eskaera oinarritzat hartzen dituen egintzen frogabideak.

C - Helbide elektronikoa edo gailu elektronikoa, administrazio publikoek abisa dezaten jakinarazpena bidali edo eskura jarri dela.

D - Zer bitarteko elektronikoren bidez edo bestela zer lekutan nahi den jakinarazpena egitea.

17. Nork aldarrikatzen ditu foru arauak?

A - Batzar Nagusiek.

B - Diputatu nagusiak.

C - Foru Aldundiak.

D - Gaiaren arabera eskuduna den foru diputatuak.

18. Zer behar da lege organikoak onesteko?

A - Kongresuaren 3/5eko gehiengoa.

B - Kongresuan dauden kideen gehiengoa.

C - Kongresuaren gehiengo absolutua.

D - Kongresuaren gehiengo soila.

19. Nork onartu behar du euskal herri aginteek emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan izango dituzten jarduerak orientatzeko jarraibideak eta gidalerroak modu koordinatu eta orokorrean jasotzen dituen plan orokorra?

A - Eusko Legebiltzarrak.

B - Eusko Jaurlaritzak.

C - Eusko Jaurlaritzak eta foru aldundiek.

D - Emakunde, Emakumearen Euskal Institutuak.

20. Zer argitaratu behar dute publikotasun aktiboko arauak betetzera behartuta dauden subjektuek?

A - Zigor espedienteetako memoriak eta txostenak.

B - Zerga kudeaketako espedienteetako memoriak eta txostenak.

C - Arau-testuak egiteko espedienteetako memoriak eta txostenak.

D - Ondare erantzukizuneko espedienteetako memoriak eta txostenak.

16. Las solicitudes de iniciación de un procedimiento deberán contener:

A - El recibo que acredite la fecha y hora de presentación.

B - Los medios de prueba de los hechos en los que se fundamenta la solicitud.

C - La dirección de correo electrónico y/o dispositivo electrónico con el fin de que las Administraciones Públicas avisen del envío o puesta a disposición de la notificación.

D - Identificación del medio electrónico, o en su defecto, lugar físico en que se desea que se practique la notificación.

17. Las Normas Forales son promulgadas por:

A - Las Juntas Generales.

B - El Diputado o Diputada General.

C - La Diputación Foral.

D - La Diputada o Diputado Foral competente por razón de la materia.

18. Las aprobación de las leyes orgánicas exigirá:

A - Mayoría de 3/5 del Congreso.

B - Mayoría de los miembros presentes del Congreso.

C - Mayoría absoluta del Congreso.

D - Mayoría simple del Congreso.

19. El plan general que recoja de forma coordinada y global las líneas de intervención y directrices que deben orientar la actividad de los poderes públicos vascos en materia de igualdad de mujeres y hombres:

A - Será aprobado por el Parlamento Vasco.

B - Será aprobado por el Gobierno Vasco.

C - Será aprobado por el Gobierno Vasco y las diputaciones forales.

D - Será aprobado por Emakunde-Instituto Vasco de la Mujer.

20. Los sujetos obligados a cumplir la normativa de publicidad activa deberán publicar:

A - Las memorias e informes que conformen los expedientes sancionadores.

B - Las memorias e informes que conformen los expedientes de gestión tributaria.

C - Las memorias e informes que conformen los expedientes de elaboración de los textos normativos.

D - Las memorias e informes que conformen los expedientes de responsabilidad patrimonial.

21. Zein dira udalerriaren osagaiak?

A - Errolda, udaletxea eta tokiko jabari publikoko lurrak.

B - Alkatea eta gobernu batzarra.

C - Lurraldea, biztanleria eta antolaketa.

D - Oinarrizko araudi estatal eta autonomikoan aitortzen zaizkionak.

22. Zein EZ da Gorte Nagusien funtzioa?

A - Aurrekontuak onestea.

B - Legegintza ahala gauzatzea.

C - Gobernuaren ekintza kontrolatzea.

D - Kanpo politika zuzentzea.

23. Administrazioekin harremanak bitarteko elektronikoz izatera behartuta dagoen norbaitek bere eskaera aurrez aurre aurkezten badu:

A - Eskaera ez da onartuko.

B - Interesdunari eskatuko zaio aurkezpen elektronikoaren bitartez zuzen dezala.

C - Baztertu egingo da.

D - Prozedura eten egingo da.

24. Agintariek eta gainerako langileek ondare erantzukizuna dutela adierazten duen ebazpenari dagokionez:

A - Ebazpenaren aurka errekurtsoa jar daiteke bide ekonomiko-administratiboan.

B - Gora jotzeko errekurtsoa aurkez dakioke.

C - Amaiera emango dio administrazio bideari.

D - Ezin da errekurritu.

25. Lurralde Historikoen Legearen arabera, zeini dagokio lege mailako arauak emateko ahalmena?

A - Eusko Legebiltzarrari eta batzar nagusiei.

B - Eusko Legebiltzarrari bakarrik.

C - Eusko Jaurlaritzari.

D - Batzar Nagusiei bakarrik.

26. Administrazio publikoek erabat deusezak deklaratuko dituzte, ofizioz, epe barruan aurkako administrazio-errekurtsorik izan ez duten administrazio egintzak:

A - Aurrez irizpena emanik Estatuko Kontseiluak edota Autonomia Erkidegoko kontsulta-organo baliokideak.

B - Aurrez aldeko irizpena emanik Estatuko Kontseiluak edota Autonomia Erkidegoko kontsulta-organo baliokideak.

C - Salbu eta Konstituzioaren babesa izan dezaketen eskubideak eta askatasunak kaltetzen badituzte.

D - Antolamendu juridikoa nolabait urratzen badute, agintea desbideratzea barne.

21. ¿Cuáles son los elementos del municipio?

A - El censo, la casa consistorial y los terrenos de dominio público local.

B - El alcalde y la junta de gobierno.

C - El territorio, la población y la organización.

D - Aquellos que la normativa básica estatal y autonómica le reconozcan.

22. NO es una función de las Cortes Generales:

A - Aprobar los presupuestos.

B - Ejercer la potestad legislativa.

C - Controlar la acción de gobierno.

D - Dirigir la política exterior.

23. Si alguno de los obligados a relacionarse a través de medios electrónicos con las Administraciones presenta su solicitud presencialmente:

A - Se procederá a su inadmisión.

B - Se requerirá al interesado para que la subsane a través de su presentación electrónica.

C - Se procederá a su exclusión.

D - Se procederá a la suspensión del procedimiento.

24. La resolución declaratoria de responsabilidad patrimonial de las autoridades y demás personal a su servicio:

A - Será recurrible en vía económico administrativa.

B - Será recurrible en alzada.

C - Pondrá fin a la vía administrativa.

D - No será recurrible.

25. Según la LTH, la facultad de dictar normas con rango de Ley corresponde:

A - Al Parlamento Vasco y a las Juntas Generales.

B - En exclusiva al Parlamento Vasco.

C - Al Gobierno Vasco.

D - En exclusiva a las Juntas Generales.

26. Las Administraciones Públicas declararán de oficio la nulidad de pleno derecho de los actos administrativos que no hayan sido recurridos en plazo:

A - Previo dictamen del Consejo de Estado u órgano consultivo equivalente de la Comunidad Autónoma.

B - Previo dictamen favorable del Consejo de Estado u órgano consultivo equivalente de la Comunidad Autónoma.

C - Salvo que lesionen los derechos y libertades susceptibles de amparo constitucional.

D - Cuando incurran en cualquier infracción del ordenamiento jurídico, incluso la desviación de poder.

27. Prozedura administratibo batean interesdun direnek eskubidea dute:

A - Jatorrizko dokumentuak ez aurkezteko, inoiz.

B - Audientzia izapidearen ondoren alegazioak egiteko edota frogak aurkezteko.

C - Noiznahi jakiteko zein den eskudun organoa prozeduraren instrukzioa egiteko.

D - Administrazio publikoen esku ez dauden datuak eta dokumentuak ez aurkezteko.

28. Administrazio publikoek erabaki dezakete prozedura bat modu sinplifikatuan izapidetzea:

A - Prozeduraren konplexutasun faltak hala gomendatzen duenean.

B - Prozeduraren zenbatekoaren arabera.

C - Erregelamenduak emateko ahalmena gauzatzeko prozeduretan.

D - Administrazio egintzak ofizioz berrikusteko prozeduretan.

29. Konstituzioaren arabera, zein dira Estatuaren antolamenduko lurralde mailak?

A - Udalerriak, mankomunitateak, probintziak eta autonomia erkidegoak.

B - Autonomia erkidegoak eta estatu zentrala.

C - Probintziak, autonomia erkidegoak eta autonomia erkidegoen federazioak.

D - Udalerriak, probintziak eta autonomia erkidegoak.

30. Zeinek onartu behar ditu lege proiektuak?

A - Ministroen Kontseiluak.

B - Estatuko Kontseiluak.

C - Kongresuko Mahaiak.

D - Senatuko Mahaiak.

31. Karrerako funtzionarioei dagokienez:

A - Ez dituzte betetzen zuzenean edo zeharka ahal publikoak baliatzeko jardunetan parte hartzea eskatzen duten eginkizunak.

B - Administrazio publiko bati lotuta daude, idatziz formalizatutako lan kontratuaren arabera.

C - Administrazio publiko bati lotuta daude, Administrazio Zuzenbideak araututako estatutu harreman baten bidez.

D - Zerbitzu profesional ordainduak ematen dituzte, iraupen ez iraunkorrez.

27. Los interesados en un procedimiento administrativo tienen derecho:

A - A no presentar documentos originales, en ningún caso.

B - A formular alegaciones y a aportar documentos después del trámite de audiencia.

C - A conocer, en cualquier momento, el órgano competente para la instrucción del procedimiento.

D - A no presentar datos y documentos que no se encuentren en poder de las Administraciones Públicas.

28. Las Administraciones Públicas podrán acordar la tramitación simplificada del procedimiento:

A - Cuando la falta de complejidad del procedimiento así lo aconseje.

B - En función de la cuantía del procedimiento.

C - En los procedimientos para el ejercicio de la potestad reglamentaria.

D - En los procedimientos de revisión de oficio de actos administrativos.

29. Conforme a la Constitución, el Estado se organiza territorialmente en:

A - Municipios, Mancomunidades, Provincias y Comunidades Autónomas.

B - Comunidades Autónomas y Estado Central.

C - Provincias, Comunidades Autónomas y Federaciones de Comunidades Autónomas.

D - Municipios, Provincias y Comunidades Autónomas.

30. Los proyectos de ley serán aprobados:

A - Por el Consejo de Ministros.

B - Por el Consejo de Estado.

C - Por la Mesa del Congreso.

D - Por la Mesa del Senado.

31. Los funcionarios de carrera:

A - No desempeñan funciones que impliquen la participación directa o indirecta en el ejercicio de las potestades públicas.

B - Están vinculados a una Administración Pública en virtud de contrato laboral formalizado por escrito.

C - Están vinculados a una Administración Pública por una relación estatutaria regulada por el Derecho Administrativo.

D - Desempeñan servicios profesionales retribuidos de carácter no permanente.

32. Euskadik Estatuari egindako ekarpena kupo orokor bat izango da:

A - Kupo hori foru aldundi bakoitzak egindako ekarpenek osatuko dute. Lurralde historikoek Euskal Herriko aurrekontu gastuei egiten dieten ekarpena da kupoa.

B - Kupo hori Eusko Legebiltzarrak ezarritako ekarpenek osatuko dute. Euskal Autonomia Erkidegoak bere egiten ez dituen Estatuaren kargei dagokien kontribuzioa da kupoa.

C - Kupo hori lurralde historiko bakoitzari dagokionak osatuko du. Euskal Autonomia Erkidegoak bere egiten ez dituen estatuaren kargei dagokien kontribuzioa da kupoa.

D - Kupo hori lurralde historiko bakoitzari dagokionak osatuko du. Euskal Autonomia Erkidegoak bere egiten dituen estatuaren kargei dagokien kontribuzioa da kupoa.

33. Behin-behineko langileak honako hauek dira: izendapen baten bidez eta iraupen ez iraunkorrez…

A - Espresuki konfiantzako edo aholkularitza bereziko eginkizuntzat jotzen direnak bakarrik betetzen dituztenak.

B - Administrazioek ordaindutako zerbitzuak ematen dituztenak, lan arloko legedian aurreikusten diren aldi baterako kontratu modalitateetakoren batean.

C - Beren lanpostuan eta izaera iragankorrez karrerako funtzionarioak ordezten dituztenak.

D - Aldi baterako programak gauzatzen dituztenak.

34. Zein da zuzena autonomia erkidegoetako legebiltzarrei dagokienez?

A - Lege proposamen bat bidal diezaiokete Kongresuko Mahaiari.

B - Lege proiektu bat bidal diezaiokete Kongresuko Mahaiari.

C - Lege organikoaren proposamen bat bidal diezaiokete Senatuko Mahaiari.

D - Oinarrien lege proposamen bat bidal diezaiokete Senatuko Mahaiari.

35. Informazioa eskuratzearen arloko ebazpen espresuzko edo presuntziozko ororen aurka, zer aurkez daiteke?

A - Gora jotzeko errekurtsoa, hierarkiaz goikoa den organoaren aurrean.

B - Erreklamazioa, derrigorrezkoa, Autonomia Erkidegoko Gardentasun eta Gobernu Onaren Kontseiluaren edo organo baliokidearen aurrean.

C - Erreklamazioa, hautazkoa, Autonomia Erkidegoko Gardentasun eta Gobernu Onaren Kontseiluaren edo organo baliokidearen aurrean.

D - Berraztertzeko errekurtsoa, organo beraren aurrean.

32. La aportación del País Vasco al Estado consistirá en un cupo global:

A - Integrado por las aportaciones que efectúen las Diputaciones Forales, como expresión de la contribución de los Territorios Históricos a los gastos presupuestarios del País Vasco.

B - Integrado por las aportaciones que establezca el Parlamento Vasco, como contribución a todas las cargas del Estado que no asuma la Comunidad Autónoma del País Vasco.

C - Integrado por los correspondientes a cada uno de sus Territorios Históricos, como contribución a todas las cargas del Estado que no asuma la Comunidad Autónoma del País Vasco.

D - Integrado por los correspondientes a cada uno de sus Territorios Históricos, como contribución a todas las cargas del Estado que asuma la Comunidad Autónoma del País Vasco.

33. Es personal eventual el que en virtud de nombramiento y con carácter no permanente:

A - Sólo realiza funciones expresamente calificadas como de confianza o asesoramiento especial.

B - Presta servicios retribuidos por las Administraciones en cualquiera de las modalidades de contratación temporal previstas en la legislación laboral.

C - El que sustituye transitoriamente a los funcionarios de carrera en su puesto de trabajo.

D - El que presta servicios para la ejecución de programas de carácter temporal.

34. Las Asambleas de las Comunidades Autónomas podrán:

A - Remitir a la Mesa del Congreso una proposición de ley.

B - Remitir a la Mesa del Congreso un proyecto de ley.

C - Remitir a la Mesa del Senado una proposición de ley orgánica.

D - Remitir a la Mesa del Senado una proposición de ley de bases.

35. Frente a toda resolución expresa o presunta en materia de acceso a la información pública podrá interponerse:

A - Recurso de alzada ante el órgano superior jerárquico.

B - Reclamación con carácter preceptivo ante el Consejo de Transparencia y Buen Gobierno, u órgano equivalente de la Comunidad Autónoma.

C - Reclamación potestativa ante el Consejo de Transparencia y Buen Gobierno, u órgano equivalente de la Comunidad Autónoma.

D - Recurso de reposición ante el mismo órgano.

36. Europar Batasuneko zein erakundek du xede nagusi Batasunaren interes orokorra sustatzea?

A - Kontu Auzitegiak.
B - Justizia Auzitegiak.
C - Batzordeak.
D - Kontseilu Europarrak.

37. Administrazio publikoekin harremanak bitarteko elektronikoz izatera behartuta daude:

A - Diharduten jarduera profesionalean jarduteko elkargo bateko kide izan behar dutenak, jarduera horretan administrazio publikoekin egin behar dituzten izapide eta jarduketetan ari direnean.
B - Administrazio publikoetako enplegatuak, edozein izapide eta jarduketa administratibotarako.
C - Pertsona fisiko edo juridikoak.
D - Pertsona fisikoak.

38. Administrazio publikoetan hizkuntza eskakizuna jarria izango dute:

A - Lanpostu guztiek.
B - Hala zehaztutako lanpostuek, administrazio bakoitzari dagokion lurraldeko hizkuntza mailaren arabera.
C - Hala zehaztutako lanpostuek, lanpostu bakoitzaren zereginen arabera.
D - Hala zehaztutako lanpostuek, sindikatuekin aurrez negoziatuta.

39. Euskal herri administrazioek emakumeen eta gizonen berdintasun printzipioari dagozkion edukiak sartuko dituzte:

A - Lanpostuak betetzeko prozesuen gaien artean.
B - Bakar-bakarrik sexuetakoren bat gutxi ordezkatuta daukaten lanpostuetako hautapen prozesuen gaien artean.
C - Bakar-bakarrik karrerako funtzionarioek hautatzeko prozesuen gaien artean.
D - Enplegu publikora sartzeko hautapen prozesuen gaien artean.

40. Autonomia Estatutuaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumen esklusiboak dira honako hauek:

A - Interes orokorreko portu eta aireportuak.
B - Jabetza intelektuala eta industria-jabetza.
C - Turismoa eta kirola. Aisia eta olgeta.
D - Derrigorrezko desjabetzeak, eta administrazio kontratu eta emakidak.

36. La institución de la Unión Europea que tiene por misión principal promover el interés general de la Unión es:

A - El Tribunal de Cuentas.
B - El Tribunal de Justicia.
C - La Comisión.
D - El Consejo Europeo.

37. Estarán obligados a relacionarse a través de medios electrónicos con las Administraciones Públicas:

A - Quienes ejerzan una actividad profesional para la que se requiera colegiación obligatoria, para los trámites y actuaciones que realicen con las Administraciones Públicas en ejercicio de dicha actividad profesional.
B - Los empleados de las Administraciones Públicas, para cualquier trámite o procedimiento administrativo.
C - Las personas físicas y jurídicas.
D - Las personas físicas.

38. En las Administraciones Públicas tendrán asignado perfil lingüístico:

A - Todos los puestos de trabajo.
B - Aquellos puestos que se determinen en función del nivel lingüístico del territorio correspondiente a cada Administración.
C - Aquellos puestos que se determinen en función de las tareas de cada puesto de trabajo.
D - Aquellos puestos que se determinen previa negociación con los sindicatos.

39. Las administraciones públicas vascas han de incluir contenidos relativos al principio de igualdad de mujeres y hombres:

A - En los temarios de los procesos de provisión de puestos de trabajo.
B - Exclusivamente en los temarios de los procesos de selección de puestos en que alguno de los sexos esté infrarrepresentado.
C - Exclusivamente en los temarios de los procesos de selección de funcionarios de carrera.
D - En los temarios de los procesos de selección para el acceso al empleo público.

40. Según el Estatuto de Autonomía, son competencias exclusivas del País Vasco las siguientes:

A - Puertos y aeropuertos de interés general.
B - Propiedad intelectual e industrial.
C - Turismo y Deporte. Ocio y esparcimiento.
D - Expropiación forzosa, contratos y concesiones administrativas.

41. Zenbat iraun dezake gehienez prebentziozko atxiloketak, Konstituzioaren aurreikuspenaren arabera?

A - Hirurogeita hamabi ordu.
B - Berrogeita zortzi ordu.
C - Hogeita lau ordu.
D - Hamabi ordu.

42. Nork hautatzen du alkatea?

A - Zinegotziek.
B - Auzotarrek.
C - Hauteskunde Batzordeak, hauteskunde legedi orokorrean ezarritakoaren arabera.
D - Zinegotziek edo auzotarrek, kasuan-kasuan.

43. Euskal Autonomia Erkidegoaren mendeko erregistro publikoetan, nola inskribatuko dira dokumentuak?

A - Gaztelaniaz.
B - Dokumentuak idatzita dauden hizkuntzan.
C - Euskaraz.
D - Euskaraz eta gaztelaniaz.

44. Ahaidetasunez edo izatez hildako pertsonari lotutako pertsonek eta hildako pertsonaren oinordekoek:

A - Hildakoaren datu pertsonalak eskuratzea eska diezaiokete tratamenduaren arduradunari.
B - Ezin diote eskatu tratamenduaren arduradunari hildakoaren datu pertsonalak eskuratzea.
C - Hildakoaren datu pertsonalak eskuratu ditzakete, hark berariaz debekatua bazuen ere.
D - Ezin diote eskatu tratamenduaren arduradunari hildakoaren datu pertsonalak zuzentzea.

45. Zer esan nahi du subsidiariotasun printzipioak Europar Batasuneko Zuzenbidean?

A - Estatu kideek xede ekintzaren helburuak ondo lortu ezin dituztenean, orduantxe bakarrik, eta hein horretan, parte hartuko du Batasunak bere eskumen esklusibokoak ez diren eremuetan.
B - Batasunaren ekintzaren edukiak eta formak ez dute gaindituko Tratatuen helburuak lortzeko beharrezkoa dena.
C - Batasunak bere balioak eta interesak indartu eta sustatuko ditu, eta bere herritarren babesa bultzatuko du.
D - Batasunak askatasun, segurtasun eta justiziako eremua eskainiko die bere herritarrei, barne mugarik gabe.

41. ¿Cuál es el plazo máximo de duración de la detención preventiva previsto en la Constitución?

A - Setenta y dos horas.
B - Cuarenta y ocho horas.
C - Veinticuatro horas.
D - Doce horas.

42. ¿Quién elige al Alcalde?

A - Los concejales.
B - Los vecinos.
C - La Junta Electoral en los términos que establezca la legislación electoral general.
D - Los Concejales o los vecinos, según los casos.

43. La inscripción de documentos en los registros públicos dependientes de la Comunidad Autónoma del País Vasco:

A - Se hará en castellano.
B - Se hará en la lengua oficial en que aparezcan extendidos.
C - Se hará en euskera.
D - Se hará en euskera y en castellano.

44. Las personas vinculadas al fallecido por razones familiares o de hecho así como sus herederos:

A - Podrán solicitar al responsable del tratamiento el acceso a los datos personales de la persona fallecida.
B - No podrán solicitar al responsable del tratamiento el acceso a los datos personales de la persona fallecida.
C - Podrán acceder a los datos personales de la persona fallecida aunque ésta lo hubiese prohibido expresamente.
D - No podrán solicitar al responsable del tratamiento la rectificación de los datos personales de la persona fallecida.

45. El principio de subsidiariedad en el Derecho de la Unión Europea significa que:

A - En los ámbitos que no sean de su competencia exclusiva, la Unión intervendrá sólo en caso de que, y en la medida en que, los objetivos de la acción pretendida no puedan ser alcanzados de manera suficiente por los Estados miembros.
B - El contenido y la forma de la acción de la Unión no debe exceder de lo necesario para alcanzar los objetivos de los Tratados.
C - La Unión afirma y promueve sus valores e intereses y contribuye a la protección de sus ciudadanos.
D - La Unión ofrece a sus ciudadanos un espacio de libertad, seguridad y justicia sin fronteras interiores.

46. Administrazio publikoetako langile lan kontratudunak izan daitezke:

A - Finkoak edo behin-behinekoak.
B - Finkoak, mugagabeak edo aldi baterakoak.
C - Finkoak, estatuarioak edo aldi baterakoak.
D - Finkoak edo goi karguak.

47. Euskal Autonomia Erkidegoan, Justizia Administrazioarekiko harremanetan, herritarrek:

A - Estatuko hizkuntza ofiziala erabili behar dute.
B - Beren aukerako hizkuntza ofiziala erabili ahal izango dute, inolako itzulpenik ezin eska dakiekeela.
C - Beren aukerako hizkuntza ofiziala erabili ahal izango dute, organo judizial eskudunak aldez aurretik baimenduta.
D - Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan aurkeztu behar dituzte dokumentuak.

48. Norengandik datozkio botereak Estatuari?

A - Konstituzioarengandik.
B - Monarkia parlamentarioarengandik.
C - Espainiako herriarengandik.
D - Gorte Nagusiengandik.

49. Bitarteko elektronikoz egindako jakinarazpenak egoitza elektronikoan egintzat joko dira:

A - Edukira sartu eta hamar egun natural igarotakoan.
B - Edukira sartu eta hamar egun baliodun igarotakoan.
C - Jakinarazpena egoitza elektronikoan eskura jartzen denetik.
D - Haien edukira sartzen den unean.

50. Lurralde Historikoen Legearen arabera, Erkidego Osorako erakundeen eskumena da legegintza eta exekuzioa gauzatzea gai hauetan:

A - Autonomia Estatutuaren arabera autonomia erkidegoari dagozkion eta, Estatutuan, Lurralde Historikoen Legean nahiz ondorengo legeetan foru organoei aitortzen edo esleitzen ez zaizkienetan.
B - Lurralde Historikoen Legeko 7. artikuluan berariaz aurreikusitakoetan.
C - Arbitraje Batzordeak izendatutakoetan.
D - Autonomia Estatutuan eta Lurralde Historikoen Legean berariaz jasotakoetan.

46. El personal laboral de las administraciones públicas puede ser:

A - Fijo o personal eventual.
B - Fijo, por tiempo indefinido o temporal.
C - Fijo, estatutario o temporal.
D - Fijo o Alto Cargo.

47. En sus relaciones con la Administración de Justicia en la Comunidad Autónoma del País Vasco, todo ciudadano:

A - Deberá utilizar la lengua oficial del Estado.
B - Podrá utilizar la lengua oficial de su elección, sin que se le pueda exigir traducción alguna.
C - Podrá utilizar la lengua oficial de su elección, previa autorización del órgano judicial competente.
D - Deberá presentar los documentos en los dos idiomas oficiales de la Comunidad Autónoma.

48. Los poderes del Estado emanan de:

A - La Constitución.
B - La Monarquía Parlamentaria.
C - El pueblo español.
D - Las Cortes Generales.

49. Las notificaciones por medios electrónicos se entenderán practicadas en la sede electrónica:

A - A los diez días naturales desde el acceso a su contenido.
B - A los diez días hábiles desde el acceso a su contenido.
C - Desde la puesta a disposición de la notificación en la sede.
D - En el momento en que se produzca el acceso a su contenido.

50. Según la LTH, es competencia de las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma la legislación y ejecución en las siguientes materias:

A - Las que, correspondiendo a la Comunidad Autónoma según el Estatuto de Autonomía, no se reconozcan o atribuyan a los Órganos Forales de los Territorios Históricos en el Estatuto, en la LTH o en leyes posteriores.
B - Las expresamente previstas en el art. 7 LTH.
C - Las que designe la Junta Arbitral.
D - Las expresamente contempladas en el Estatuto de Autonomía y en la LTH.

51. Non jasoko dira autonomia erkidegoetako erakunde propioen izena, antolamendua eta egoitza?

A - Diputatuen Kongresuan eta Senatuan gehiengo kualifikatuaz onartutako lege arruntean.

B - Autonomia erkidegoaren beraren barne erregelamenduan.

C - Gobernuko presidenteak onartutako errege dekretuan.

D - Autonomia estatutuan.

52. Zigor arloko arau-hauste eta kondenei buruzko datu pertsonalen tratamendua:

A - Legezkoa da bakar-bakarrik datuen babeseko ordezkariak baimendu badu.

B - Legezkoa da bakar-bakarrik zigor arloko epaitegiek baimendu badute.

C - Legezkoa da bakar-bakarrik datuen babeseko agintaritzak baimendu badu.

D - Soilik egin daiteke Europar Batasuneko Zuzenbideko arau baten babesean egiten bada.

53. Euskal lege-dekretuak:

A - Eusko Jaurlaritzak aparteko eta presazko beharrizana dagoenean eman ditzakeen behin-behineko legegintza xedapenak dira.

B - Berehala jarriko dira Eusko Legebiltzarraren eztabaidara eta bozketara.

C - Eusko Legebiltzarrak nahitaez berretsi behar ditu aldarrikatu eta 45 eguneko epean gehienez.

D - Ez dago jasota Eusko Jaurlaritzak lege-dekretuak onar ditzakeenik.

54. Konstituzioaren arabera, non aintzatetsi daitezke autonomia-erkidegoen bandera eta ikur propioak?

A - Lege organiko batean.

B - Autonomia Estatutuetan.

C - Konstituzioan bertan.

D - Harmonizazio lege batean.

55. Zer argitaratu behar dute publikotasun aktiboko arauak betetzera behartuta dauden subjektuek?

A - Sinatutako hitzarmenen zerrenda.

B - Hitzarmenen zerrenda, Kontuen Auzitegiak ikuskatu ondoren.

C - Sinatutako hitzarmenen testuak osorik.

D - Hitzarmen proiektuak, horien zenbatekoa Europar Batasunaren Zuzenbideak ezarritako zenbatekoaren gainetik dagoenean.

51. La denominación, organización y sede de las instituciones propias de las Comunidades Autónomas se ha de contemplar en:

A - Ley ordinaria aprobada por mayoría cualificada en Congreso de los Diputados y Senado.

B - Reglamento interno de la propia Comunidad Autónoma.

C - Real Decreto aprobado por el Presidente de Gobierno.

D - El Estatuto de Autonomía.

52. El tratamiento de datos personales relativos a condenas e infracciones penales:

A - Solo será lícito si se autoriza por el Delegado de Protección de datos.

B - Solo será lícito si se autoriza por los Juzgados de lo Penal.

C - Solo será lícito si se autoriza por la Autoridad de Protección de datos.

D - Podrá llevarse a cabo cuando se encuentre amparado en una norma del Derecho de la Unión Europea.

53. Los Decretos-ley vascos:

A - Son las disposiciones legislativas provisionales que el Gobierno Vasco puede dictar en caso de extraordinaria y urgente necesidad.

B - Deberán ser inmediatamente sometidos a debate y votación del Parlamento Vasco.

C - Deberán ser convalidados por el Parlamento Vasco en el plazo máximo de 45 días siguientes a su promulgación.

D - No se contempla la aprobación de Decretos-ley por el Gobierno Vasco.

54. De acuerdo con la Constitución, ¿dónde podrán reconocerse las banderas y enseñas propias de las Comunidades Autónomas?

A - En una Ley Orgánica.

B - En los Estatutos de Autonomía.

C - En la propia Constitución.

D - En una ley de armonización.

55. Los sujetos obligados a cumplir la normativa de publicidad activa deberán publicar:

A - La relación de los convenios suscritos.

B - La relación de los convenios una vez auditados por el Tribunal de Cuentas.

C - El texto íntegro de los convenios suscritos.

D - Los proyectos de convenio cuando su importe supere el importe establecido por el Derecho de la Unión Europea.

ERANTZUN ZUZENEN ZERRENDA **LISTA DE RESPUESTAS CORRECTAS**

Erref. / Ref. OP2018/02

Azterketaren eguna: 2019/06/14 **Día del examen: 14/06/2019**

ADMINISTRAZIO OROKORREKO TEKNIKARIA
1.A) ARIKETA

TÉCNICO/A DE ADMINISTRACIÓN GENERAL
EJERCICIO 1.A)

A Galdesorta / Cuestionario A

1 **D**	2 **D**	3 **A**	4 **C**	5 **C**	6 **D**	7 **C**	8 **B**	9 **A**	10 **B**
11 **A**	12 **B**	13 **B**	14 **D**	15 **D**	16 **D**	17 **B**	18 **C**	19 **B**	20 **C**
21 **C**	22 **D**	23 **B**	24 **C**	25 **B**	26 **B**	27 **C**	28 **A**	29 **D**	30 **A**
31 **C**	32 **C**	33 **A**	34 **A**	35 **C**	36 **C**	37 **A**	38 **A**	39 **D**	40 **C**
41 **A**	42 **D**	43 **B**	44 **A**	45 **A**	46 **B**	47 **B**	48 **C**	49 **D**	50 **A**
51 **D ***	52 **D ***	53 **D ***	54 **B ***	55 **A ***					

B Galdesorta / Cuestionario B

1 **A**	2 **D**	3 **A**	4 **A**	5 **C**	6 **B**	7 **C**	8 **D**	9 **B**	10 **C**
11 **A**	12 **C**	13 **C**	14 **D**	15 **C**	16 **B**	17 **B**	18 **D**	19 **C**	20 **A**
21 **A**	22 **A**	23 **A**	24 **D**	25 **C**	26 **D**	27 **A**	28 **B**	29 **C**	30 **B**
31 **D**	32 **A**	33 **B**	34 **D**	35 **B**	36 **A**	37 **D**	38 **B**	39 **C**	40 **C**
41 **C**	42 **B**	43 **D**	44 **C**	45 **C**	46 **A**	47 **B**	48 **D**	49 **A**	50 **B**
51 **D ***	52 **D ***	53 **D ***	54 **B ***	55 **A ***					

C Galdesorta / Cuestionario C

1 **D**	2 **D**	3 **A**	4 **D**	5 **B**	6 **C**	7 **A**	8 **B**	9 **A**	10 **C**
11 **C**	12 **A**	13 **D**	14 **B**	15 **C**	16 **C**	17 **A**	18 **A**	19 **C**	20 **B**
21 **B**	22 **D**	23 **A**	24 **A**	25 **C**	26 **A**	27 **B**	28 **D**	29 **A**	30 **B**
31 **C**	32 **D**	33 **D**	34 **C**	35 **B**	36 **C**	37 **A**	38 **C**	39 **D**	40 **B**
41 **D**	42 **C**	43 **C**	44 **B**	45 **C**	46 **A**	47 **A**	48 **B**	49 **D**	50 **B**
51 **D ***	52 **D ***	53 **D ***	54 **B ***	55 **A ***					

D Galdesorta / Cuestionario D

1 **C**	2 **A**	3 **A**	4 **A**	5 **C**	6 **A**	7 **C**	8 **A**	9 **C**	10 **C**
11 **D**	12 **C**	13 **C**	14 **C**	15 **B**	16 **B**	17 **D**	18 **C**	19 **A**	20 **D**
21 **D**	22 **B**	23 **B**	24 **D**	25 **B**	26 **B**	27 **A**	28 **A**	29 **C**	30 **C**
31 **B**	32 **C**	33 **D**	34 **A**	35 **D**	36 **A**	37 **D**	38 **B**	39 **B**	40 **B**
41 **A**	42 **A**	43 **C**	44 **B**	45 **D**	46 **C**	47 **A**	48 **B**	49 **D**	50 **D**
51 **D ***	52 **D ***	53 **D ***	54 **B ***	55 **A ***					

** Erreserbako galderak / Preguntas de reserva*

OHARRA: erantzun zuzenen behin-behineko plantila, galdera sortari egindako alegazioen azterketa egin aurrekoa. Alegazio horiek erabaki ondoren, behin betiko plantila argitaratuko da.

NOTA: Plantilla provisional de respuestas correctas, sin perjuicio del análisis de las alegaciones presentadas al cuestionario de preguntas. Una vez resueltas las mismas, en breve se publicará la plantilla definitiva.

Donostia-San Sebastián, 2019/06/14

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

A EREDUA / MODELO A

ADMINISTRAZIO OROKORREKO TEKNIKARIA

Ezagutza teorikoen proba

1. ariketa - B) atala

TÉCNICO/A DE ADMINISTRACIÓN GENERAL

Prueba de conocimientos teóricos

Ejercicio 1 - Apartado B)

EZ PASA ORRIA, PASATZEKO ESATEN DEN ARTE!!!

¡¡¡NO VUELVA LA HOJA HASTA QUE SE LE INDIQUE!!!

Erref. - Ref.: OP2018/02

KONTUZ: Erantzunen Orriko 240. galderan, adierazi zein ariketa eredu egokitu zaizun: “A” aukera.

ATENCIÓN: Indique en la pregunta nº 240 de la Hoja de Respuestas el modelo de cuestionario que le ha correspondido: opción “A”.

ERANTZUNEN ORRIA / HOJA DE RESPUESTAS

	A	B	C	D
240	■	□	□	□

Galdera bakoitzeko launa erantzun daude, aurretik letra hauek dituztenak: “A”, “B”, “C” eta “D”. Erantzun zuzena, ordea, bat bakarra da. Erantzunen Orrian ontzat eman duzun erantzunari dagokion letra markatu behar duzu, bertan erakusten den bezala.

En cada pregunta hay 4 posibles respuestas, precedidas de las letras "A”, “B”, “C” y “D”, de las que sólo una es correcta. Debe marcar en la Hoja de Respuestas la letra que corresponda a la solución, tal como se señala en la misma.

Aurrena, galdera orrian erantzun, eta gero Erantzunen Orrian kopiatu ezazu egin duzun aukera hori. Kontuz ibili kopiatzerakoan, eta gaizki markatu baduzu, eskatu laguntza zaintzaile bati.

Conteste primero en el cuadernillo y copie después la opción seleccionada en la Hoja de Respuestas. Tenga cuidado al copiar y si se equivoca, pida ayuda a un/a cuidador/a.

EZ AHAZTU: Erantzunen Orrian markatu aukeratu duzun erantzuna. Erantzun bat bakarra markatu.

RECUERDE: marque la solución en la Hoja de Respuestas y marque sólo una respuesta.

Azterketaren bukaeran erreserbako 10 galdera daude eta aurreko galderaren bat baliogabetuz gero bakarrik ebaluatuko dira.

El examen tiene al final del ejercicio 10 preguntas de reserva que sólo se evaluarán en el supuesto de anularse alguna pregunta.

Azterketako galderak: 1etik 200era
Erreserbako galderak: 201etik 210era

Preguntas de examen: de la 1 a la 200
Preguntas de reserva: de la 201 a la 210

KONTUZ: Ezagutza teorikoren probaren B) atalean erantzun okerrek penalizazioa dute (1/3)

ATENCIÓN: En la prueba de conocimientos teóricos apartado B) las respuestas erróneas penalizan (1/3)

OSO GARRANTZITSUA

LAUKITXOAK ONDO MARKATU

ONDO BIEN



GAIZKI MAL



GAIZKI MAL



MUY IMPORTANTE

MARQUE CORRECTAMENTE LAS CASILLAS

GAIZKI MAL



GAIZKI MAL



GAIZKI MAL



Irun, 2019-09-26

Irún, 26-09-2019

1. Eusko Legebiltzarrak zein gehiengo behar du Herri Kontuen Euskal Epaitegiko kideak hautatzeko?

A - Sinplea.
B - Absolutua.
C - Bi herenekoa.
D - Hiru bostenekoa.

2. Lan elkartuko kooperatibetako bazkide langileek Gizarte Segurantzaren onurez gozatuko dute, eta kooperatibak honako modalitate hauen artean aukeratu ahalko du:

A - Norbere konturako langileen parekatu gisa. Kooperatiba horiek beti Gizarte Segurantzako araubide berezietako batean sartuko dira, beren jardueraren arabera dagokionean, hain zuzen.
B - Langile autonomo gisa, Araubide Orokorrean.
C - Besteren konturako langileen parekatu gisa. Kooperatiba horiek Gizarte Segurantzako Araubide Orokorrean sartuko dira, edo beraren araubide berezietako batean beren jardueraren arabera dagokionean, hain zuzen.
D - Besteren konturako langile gisa. Kooperatiba horiek beti Gizarte Segurantzaren Araubide Orokorrean sartuko dira.

3. Arartekoaren esku-hartzeak:

A - Ez ditu deuseztatzen jakinarazi zaizkion egintzak, eta ez ditu eteten errekurtsoak jarri ahal izateko epeak.
B - Ez ditu deuseztatzen jakinarazi zaizkion egintzak, baina etenik uzten ditu errekurtso administratiboak jartzeko epeak.
C - Ez ditu deuseztatzen jakinarazi zaizkion egintzak, eta ez ditu eteten errekurritzeko epeak, baina berrikusteko errekurtso berezia aurkeztea justifika dezake.
D - Deuseztatu egin ditzake jakinarazi zaizkion egintzak, zuzenbidez erabat deusezak badira.

4. Euskal Herriko Bitartekaritza Batzordea aurreikusita dago Autonomia Estatutuan:

A - Alde batetik Eusko Jaurlaritza dela eta bestetik foru aldundiak direla, soilik horien artean sor daitezkeen eskumen gatazkak ebazteko.
B - Alde batetik Eusko Legebiltzarra dela eta bestetik Batzar Nagusiak direla, soilik horien artean sor daitezkeen eskumen gatazkak ebazteko.
C - Alde batetik Eusko Jaurlaritza eta Eusko Legebiltzarra direla eta bestetik foru aldundiak eta Batzar Nagusiak direla, soilik horien artean sor daitezkeen eskumen gatazkak ebazteko.
D - Alde batetik foru aldundiak direla eta bestetik Batzar Nagusiak direla, soilik horien artean sor daitezkeen eskumen gatazkak ebazteko.

1. A los miembros del Tribunal Vasco de Cuentas Públicas los elige el Parlamento Vasco por mayoría:

A - Simple.
B - Absoluta.
C - De dos tercios.
D - De tres quintos.

2. Los socios trabajadores de las cooperativas de trabajo asociado disfrutarán de los beneficios de la Seguridad Social, pudiendo optar la cooperativa entre las modalidades siguientes:

A - Como asimilados a trabajadores por cuenta propia. Dichas cooperativas se integrarán siempre en alguno de los regímenes especiales de la Seguridad Social, según proceda, de acuerdo con su actividad.
B - Como trabajadores autónomos en el Régimen General.
C - Como asimilados a trabajadores por cuenta ajena. Dichas cooperativas quedarán integradas en el Régimen General o en alguno de los regímenes especiales de la Seguridad Social, según proceda, de acuerdo con su actividad.
D - Como trabajadores por cuenta ajena. Dichas cooperativas se integrarán siempre en el Régimen General de la Seguridad Social.

3. La intervención del Ararteko:

A - No anula los actos sometidos a su conocimiento ni suspende los plazos para recurrir.
B - No anula los actos sometidos a su conocimiento, pero sí suspende los plazos para los recursos administrativos.
C - No anula los actos sometidos a su conocimiento ni suspende los plazos para recurrir, pero sí puede justificar la interposición de un recurso extraordinario de revisión.
D - Anula los actos sometidos a su conocimiento si fuesen nulos de pleno derecho.

4. La Comisión Arbitral del País Vasco se prevé en el Estatuto de Autonomía:

A - Sólo para resolver los conflictos competenciales que surjan entre el Gobierno Vasco, por un lado, y las Diputaciones Forales, por el otro.
B - Sólo para resolver los conflictos competenciales que surjan entre el Parlamento Vasco, por un lado, y las Juntas Generales, por el otro.
C - Sólo para resolver los conflictos competenciales que surjan entre, por un lado, el Parlamento Vasco y el Gobierno Vasco y, por el otro, las Diputaciones Forales y las Juntas Generales.
D - Sólo para resolver los conflictos competenciales que surjan entre, por un lado, las Diputaciones Forales y, por el otro, las Juntas Generales.

5. Zehapen prozeduretan, alegazioak aurkezteko aukera eman beharra dago:

A - Ebazpen proposamena egin aurretik.
B - Froga eman bezain laster beti.
C - Ebazpen proposamena egin eta gero.
D - Informazio publikoaren izapidea eta gero.

6. Gora jotzeko errekurtsoa jar daiteke:

A - Ondarezko erantzukizuneko prozeduren ebazpenen aurka.
B - Hierarkian goragoko organorik ez duten organoen ebazpenen aurka, baldin eta lege batek kontrakoa ez badio.
C - Egintza eman zuen organoaren aurrean edo ebazteko eskumena duen horren nagusi hierarkikoaren aurrean.
D - Aukerako izaeraz, administrazioarekiko auzien bidera jo baino lehen.

7. Erregelamenduak prestatzeko prozeduran entzunaldia eskaini behar zaie herritarrei:

A - Beti, eta ezingo da justifikatu halakorik ez egitea, interes publikoko arrazoi larriak argudiatuz.
B - Oro har, eragiten dieten eskubide eta interes legitimoei dagokienez, baina legeak zenbait salbuespen arautzen ditu.
C - Estatuaren Administrazio Orokorraren, administrazio autonomikoaren, toki administrazioaren edo horien mendeko edo horiei lotutako aurrekontu arauak direnean.
D - Estatuaren Administrazio Orokorraren, administrazio autonomikoaren, toki administrazioaren edo horien mendeko edo horiei lotutako erakundeen antolaketa arauak direnean.

8. Zer edo nor ez dago legitimaturik Administrazioarekiko auzietako jurisdikzioaren aurrean?

A - Sindikatuak.
B - Eskubidea edo interes legitimoa duten pertsona fisikoak edo juridikoak.
C - Fiskaltza.
D - Estatuari, autonomia erkidegoei edo toki entitateei lotuak dauden edo haien mendeko diren entitateak, gainetik duten administrazioaren jarduerari dagokionez, non eta legez ez zaien eman harekiko berariazko autonomia estatutu bat.

5. En los procedimientos sancionadores se debe otorgar la posibilidad de formular alegaciones:

A - Antes de la propuesta de resolución.
B - Siempre inmediatamente después de la prueba.
C - Después de la propuesta de resolución.
D - Después del trámite de información pública.

6. El recurso de alzada puede interponerse:

A - Contra las resoluciones de los procedimientos de responsabilidad patrimonial.
B - Contra las resoluciones de los órganos que carezcan de superior jerárquico, salvo que una Ley establezca lo contrario.
C - Ante el órgano que dictó el acto o ante el superior jerárquico competente para resolverlo.
D - Con carácter potestativo antes de acudir a la vía contencioso-administrativa.

7. En el procedimiento de elaboración de reglamentos se debe dar audiencia a los ciudadanos:

A - En todo caso, no pudiéndose alegar razones graves de interés público que justifiquen su omisión.
B - Con carácter general, en relación con las normas que afecten a sus derechos e intereses legítimos, si bien la ley regula algunas excepciones.
C - En el caso de normas presupuestarias de la Administración General del Estado, la Administración autonómica, la Administración local o de las organizaciones dependientes o vinculadas a éstas.
D - En el caso de normas organizativas de la Administración General del Estado, la Administración autonómica, la Administración local o de las organizaciones dependientes o vinculadas a éstas.

8. No están legitimados ante la Jurisdicción Contencioso-administrativa:

A - Los sindicatos.
B - Las personas jurídicas que ostenten un derecho o interés legítimo.
C - El Ministerio Fiscal.
D - Las Entidades de Derecho público que sean dependientes o estén vinculadas al Estado, las Comunidades Autónomas o las Entidades locales, respecto de la actividad de la Administración de la que dependan, salvo que por ley se les haya dotado de un estatuto específico de autonomía respecto de ésta.

9. 38/2003 Legea Orokorrak, azaroaren 17koak, Dirulaguntzei buruzkoak xedatutakoaren ondorioetarako, dirulaguntzatzat hartzen da diruzko ekarpen oro, legearen 3. artikuluan aipatzen diren subjektuek egina, pertsona publiko zein pribatuen alde, baldintza hauek betetzen baditu:

A - Onuradunaren kontraprestazioa zuzena izatea.

B - Finantzatzen den proiektu, ekintza, jokaera edo egoerak herri onurako edo interes sozialeko jarduerak bultzatzea edo helburu publikoren bat sustatzea.

C - Ekarpena lotuta egotea helburu jakin bati, proiektu bat exekutatzeari, jarduera bat burutzeari, jokaera berezi bat hartzeari, edo egoera jakin bat gertatzeari, soil-soilik jada eginak badaude.

D - Ekarpena lotuta egotea helburu jakin bati, proiektu bat exekutatzeari, jarduera bat burutzeari, jokaera berezi bat hartzeari, edo egoera jakin bat gertatzeari, soil-soilik oraindik egin gabe badaude.

10. Konkurtso adierazpenak:

A - Geldiarazi egingo du zorduna gauzatzen ari den lanbide edo enpresa jarduera.

B - Ez du geldiaraziko zorduna gauzatzen ari den lanbide edo enpresa jarduera.

C - Eten egingo du zorduna gauzatzen ari den lanbide edo enpresa jarduera.

D - Eten egingo du zorduna gauzatzen ari den lanbide edo enpresa jarduera.

11. Zer eskuordetu dezakete foru diputatuek?

A - Beren eskumenetako batzuk soilik, eta zuzendari nagusiengan bakarrik.

B - Beren eskumen guztiak, baina zuzendari nagusiengan soilik.

C - Beren eskumen guztiak, bai zuzendari nagusiengan, bai bere departamentuko beste organoetan.

D - Beren eskumenetako batzuk soilik, bai zuzendari nagusiengan, bai bere departamentuko beste organoetan.

9. Se entiende por subvención, a los efectos de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones, toda disposición dineraria realizada por cualesquiera de los sujetos contemplados en el artículo 3 de esta ley, a favor de personas públicas o privadas, y que cumpla los siguientes requisitos:

A - Que la contraprestación del beneficiario sea directa.

B - Que el proyecto, la acción, conducta o situación financiada tenga por objeto el fomento de una actividad de utilidad pública o interés social o de promoción de una finalidad pública.

C - Que la entrega esté sujeta al cumplimiento de un determinado objetivo, la ejecución de un proyecto, la realización de una actividad, la adopción de un comportamiento singular, únicamente si los mismos se encuentran ya realizados.

D - Que la entrega esté sujeta al cumplimiento de un determinado objetivo, la ejecución de un proyecto, la realización de una actividad, la adopción de un comportamiento singular, únicamente si los mismos no se encuentran todavía realizados.

10. La declaración de concurso:

A - Interrumpirá la continuación de la actividad profesional o empresarial que viniera ejerciendo el deudor.

B - No interrumpirá la continuación de la actividad profesional o empresarial que viniera ejerciendo el deudor.

C - Suspenderá la continuación de la actividad profesional o empresarial que viniera ejerciendo el deudor.

D - Supondrá el cese de la actividad profesional o empresarial que viniera ejerciendo el deudor.

11. Las Diputadas y Diputados Forales pueden delegar:

A - Solamente el ejercicio de algunas de sus competencias y solamente en las directoras y directores generales.

B - El ejercicio de todas sus competencias, pero solamente en las directoras y directores generales.

C - El ejercicio de todas sus competencias, tanto en las directoras y directores generales como en otros órganos de su departamento.

D - Solamente el ejercicio de algunas de sus competencias y tanto en las directoras y directores generales como en otros órganos de su departamento.

12. Zein da administrazioen arteko hitzarmenen iraunaldia, 40/2015 Legeak xedatutakoaren arabera?

A - Legeak ez du ezartzen.
B - Hitzarmenak berak ezartzen duena.
C - Gehienez ere lau urtekoa, non eta epe luzeagoa aurreikusten ez den arau bidez.
D - Gehienez ere bi urtekoa.

13. Estatuko Aurrekontu Orokorren Legea:

A - Diputatuen Kongresuaren gehiengo absolutuaz onartzen da.
B - Gobernuaren proiektu bat abiapuntutzat hartuta izapidetzen da beti.
C - Gobernuak ez baditu aurkezten, dagokion epean, Diputatuen Kontseiluaren aurrean, lege proposamen batetik abiatuta izapidetu daitezke.
D - Ez du prozedurazko berezitasunik.

14. Babes prozedura konstituzionalean:

A - Alde batek eskatuta soilik har daitezke kautelazko neurriak.
B - Ministerio Fiskalak eskatuz gero bakarrik har daitezke kautelazko neurriak.
C - Ofizioz hartutako kautelazko neurriak bakarrik izan daitezke.
D - Bai ofizioz bai alde batek eskatuta har daitezke kautelazko neurriak.

15. Euskadiko 2/2006 Legeak, ekainaren 30ekoak, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoak, xedatutakoaren arabera, antolamendu xehatuko planak dira:

A - Plan orokorrak: hiri-lurzoru sektorekatu gisa zehazturiko sektoreen antolaketari azken bultzada emateko, plan orokorrean edo sektorizatze-planean hala ezartzen denean.
B - Plan bereziak: lurzoru urbanizaezin sektorekatu gisa zehazturiko sektoreen antolaketari azken bultzada emateko, plan orokorrean edo sektorizatze-planean hala ezartzen denean.
C - Plan partzialak: lurzoru urbanizagarri sektorekatu gisa zehazturiko sektoreen antolaketari azken bultzada emateko, plan orokorrean edo sektorizatze-planean hala ezartzen denean.
D - Hiri-antolamenduko plan sektorialak: lurzoru urbanizagarri sektorekatu gisa zehazturiko areen antolaketari azken bultzada emateko, plan orokorrean hala ezartzen denean.

12. De acuerdo con lo establecido en la Ley 40/2015, el plazo máximo de vigencia de los convenios interadministrativos:

A - No viene establecido en la ley.
B - Será el que se fije en el propio convenio.
C - No podrá ser superior a cuatro años, salvo que normativamente se prevea un plazo superior.
D - No podrá ser superior a dos años.

13. La Ley de Presupuestos Generales del Estado:

A - Requiere la mayoría absoluta del Congreso de los Diputados.
B - Siempre se tramita a partir de un proyecto gubernamental.
C - Si el Gobierno no los presenta en plazo en el Congreso de los Diputados, se pueden tramitar a partir de una proposición de ley.
D - No tiene especialidad procedimental alguna.

14. En el proceso constitucional de amparo:

A - Sólo caben medidas cautelares adoptadas a instancia de parte.
B - Sólo caben medidas cautelares si lo solicita el Ministerio Fiscal.
C - Sólo caben medidas cautelares adoptadas de oficio.
D - Caben medidas cautelares adoptadas tanto de oficio como a instancia de parte.

15. Según la Ley 2/2006, de 30 de junio, de suelo y Urbanismo del País Vasco, son planes de ordenación pormenorizada:

A - Planes generales, que tienen por objeto la ultimación de la ordenación en sectores determinados en suelo urbano, cuando así se estableciera por el plan general o el plan de sectorización.
B - Planes especiales, que tienen por objeto la ultimación de la ordenación en sectores determinados en suelo no urbanizable, cuando así se estableciera por el plan general o el plan de sectorización.
C - Planes parciales, que tienen por objeto la ultimación de la ordenación en sectores determinados en suelo urbanizable sectorizado, cuando así se estableciera por el plan general o el plan de sectorización.
D - Planes sectoriales de ordenación urbana, que tienen por objeto la ultimación de la ordenación en áreas determinadas en suelo urbanizable, cuando así se estableciera por el plan general.

16. Euskadiko 2/2006 Legeak, ekainaren 30ekoak, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoak, xedatutakoaren arabera, hiri-lurzoru gisa sailkatuko dira lursailak baldin eta badaude eraldatuak eta:

A - Hiri-bilbean sartuta ez dauden arren edo oraindik sartzeko modukoak ez diren arren, egoki irizten zaienean eraldatu ondoren hirigintza-erabileren berma-leku izateko.

B - Lehendik dagoen hiri-bilbean —sailkapena egiten duen plan orokorrak bere egiten duen neurrian— sartuta dauden edo sar daitezkeenak.

C - Betiere, plangintza orokorraren bidez lurzoru urbanizaezinaren motan sartu ez direnak.

D - Betiere, plangintza orokorraren bidez lurzoru urbanizagarriaren motan sartu ez direnak.

16. Según la Ley 2/2006, de 30 de junio, de suelo y Urbanismo del País Vasco, procederá la clasificación como suelo urbano de los terrenos ya transformados, que:

A - No estando integrados en trama urbana ni siendo aún integrables en ella, se consideren idóneos para servir de soporte, previa su transformación urbanística, a usos urbanísticos.

B - Estén integrados o sean integrables en la trama urbana existente y asumida por el propio plan general que realice la clasificación.

C - En todo caso, los que no sean adscritos por el planeamiento general a las clases de suelo no urbanizable.

D - En todo caso, los que no sean adscritos por el planeamiento general a las clases de suelo urbanizable.

17. Autonomia erkidego batek Estatuaren egintza bati buruz gatazka positiboa planteatzen badu:

A - Egintza ez da inoiz kautelaz etengo.

B - Egintza beti etengo da kautelaz.

C - Egintza kautelaz etengo da, soilik autonomia erkidegoak Konstituzioko 161.2 artikulua argudiatzen badu.

D - Egintza eten daiteke baldin eta autonomia erkidegoak hala eskatzen badu kalte konponezinak edo konpongaitzak argudiatuz.

17. El planteamiento de un conflicto positivo por una Comunidad Autónoma respecto de un acto del Estado:

A - Nunca implica la suspensión cautelar del acto.

B - Siempre implica la suspensión cautelar del acto.

C - Sólo implica la suspensión cautelar del acto si la Comunidad Autónoma invoca el art. 161.2 CE.

D - Puede implicar la suspensión si la Comunidad Autónoma lo solicita invocando perjuicios de imposible o difícil reparación.

18. Zein izango da Estatuaren Administrazio Orokorrak izapidetzen dituen prozeduretako hizkuntza?

A - Gaztelania, edozein kasutan.

B - Gaztelania edo Autonomia Erkidegoaren hizkuntza ofiziala, nola Estatuaren Administrazio Orokorraren organo zentraletan hala lurralde mailakoetan.

C - Gaztelania, baina autonomia erkidego batean koofiziala den hizkuntza ere erabili ahal izango da, interesatuek Estatuaren Administrazio Orokorrak lurralde horretan dituen organoetara jotzen dutenean.

D - Interesdunak bere ama hizkuntza erabili ahal izango du beti.

18. La lengua de los procedimientos tramitados por la Administración General del Estado será:

A - El castellano en todo caso.

B - Alternativamente el castellano o la lengua cooficial de la Comunidad Autónoma, tanto en relación con la organización central de la Administración General del Estado como con la territorial.

C - El castellano, pudiéndose utilizar también la lengua que sea cooficial en el territorio de una Comunidad Autónoma cuando los/as interesados/as se dirijan a los órganos de la Administración General del Estado con sede en dicho territorio.

D - Siempre podrá utilizarse la lengua materna del/de la interesado/a.

19. Fundazioak:

A - Irabazteko asmoa duten erakundeak dira, fundatzaileek hala nahi dutelako beren ondarea interes orokorreko helburuetara lotuta dutenak modu iraunkorrean.

B - Irabazteko asmorik gabeko erakundeak dira, fundatzaileek hala nahi dutelako beren ondarea interes partikularreko helburuetara lotuta dutenak modu iraunkorrean.

C - Irabazteko asmoa duten erakundeak dira, fundatzaileek hala nahi dutelako beren ondarea interes partikularreko helburuetara lotuta dutenak modu iraunkorrean.

D - Irabazteko asmorik gabeko erakundeak dira, fundatzaileek hala nahi dutelako beren ondarea interes orokorreko helburuetara lotuta dutenak modu iraunkorrean.

20. Administrazioaren jarduna gainbegiratzeko eginkizunean, Herriaren Defendatzaileak:

A - Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren jarduerak gainbegiratu ditzake, bere kabuz.

B - Ezin ditu gainbegiratu Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren jarduerak, hori Arartekoak soilik egin baitezake.

C - Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren jarduerak gainbegiratu ditzake, Arartekoa eskumengabe deklaratuz gero.

D - Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren jarduerak gainbegiratu ditzake, baina ez bere kabuz, Arartekoak eskuordetuta baizik.

21. Zerk arautuko du Gipuzkoako udalerrien antolaketa eta funtzionamendua?

A - Estatuko oinarrizko legediak eta, onetsitakoan, dagozkien erregelamendu organikoek.

B - Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legeak.

C - Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legeak eta haren erregelamendu organikoek.

D - Euskadiko Toki Erakundeen Legeak eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko Erakunde Antolamenduari, Gobernuari eta Administrazioari buruzko Foru Arauak.

22. Zenbat euroko edo gehiagoko obra-kontratuak, obra-emakidako kontratuak eta zerbitzu-emakidako kontratuak dira erregulazio harmonizatukoak?

A - 221.000 euro.

B - 750.000 euro.

C - 2.000.000 euro.

D - 5.548.000 euro.

19. Las fundaciones:

A - Son organizaciones constituidas con ánimo de lucro que, por voluntad de las personas fundadoras, tienen afectado de modo duradero su patrimonio a la realización de fines de interés general.

B - Son organizaciones constituidas sin fin de lucro que, por voluntad de las personas fundadoras, tienen afectado de modo duradero su patrimonio a la realización de fines de interés particular.

C - Son organizaciones constituidas con ánimo de lucro que, por voluntad de las personas fundadoras, tienen afectado de modo duradero su patrimonio a la realización de fines de interés particular.

D - Son organizaciones constituidas sin fin de lucro que, por voluntad de las personas fundadoras, tienen afectado de modo duradero su patrimonio a la realización de fines de interés general.

20. En su cometido de supervisar la actuación de la Administración, el Defensor del Pueblo:

A - Puede supervisar las actuaciones de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco por sí mismo.

B - No puede supervisar las actuaciones de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco, sino que sólo lo puede hacer elArarteko.

C - Puede supervisar las actuaciones de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco si el Ararteko se declara incompetente.

D - Puede supervisar las actuaciones de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco, pero no por sí mismo sino por delegación del Ararteko.

21. La organización y funcionamiento de los municipios de Gipuzkoa se rige:

A - Por la legislación básica estatal y, cuando los tengan aprobados, por sus reglamentos orgánicos.

B - Por la Ley de Instituciones Locales de Euskadi.

C - Por la Ley de Instituciones Locales de Euskadi y por sus reglamentos orgánicos.

D - Por la Ley de Instituciones Locales de Euskadi y por la Norma Foral de Organización Institucional, Gobierno y Administración del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

22. Están sujetos a regulación armonizada los contratos de obras, de concesión de obras y de concesión de servicios cuyo valor estimado sea igual o superior a:

A - 221.000 euros.

B - 750.000 euros.

C - 2.000.000 euros.

D - 5.548.000 euros.

23. Nola azkentzen dira zorrak, foru arauetan edo lege xedapenetan jasotako gainerako bitartekoez gainera?

A - Ordainduz, preskribatuz, iraungiz eta konpentsatuz.
B - Ordainduz, preskribatuz eta iraungiz.
C - Ordainduz, preskribatuz eta kondonatuz.
D - Ordainduz, preskribatuz, konpentsatuz eta kondonatuz.

24. Gipuzkoako Batzar Nagusien Erregelamendua aldatzeko, zer gehiengo behar da?

A - Gehiengo absolutua.
B - Gehiengo soila.
C - Bi hereneko gehiengoa.
D - Mahaikideek aho batez onartzea eta gero gehiengo absolutua izatea.

25. Administrazio prozeduran, zer dakar gaian zerikusi zuzena duen pertsona fisiko edo juridikoren batekin zerbitzu harremana izateak edo pertsona horri azken bi urteetan edozein era, baldintza eta tokitan lan zerbitzuak eskaini izateak?

A - Abstentzioa.
B - Errekusazioa.
C - Abstentzioa nahiz errekusazioa.
D - Ez abstentziorik, ez errekusaziorik.

26. 39/2015 Legeak ez du berariaz exijitzen honako hauek arrazoitzea:

A - Partikularren eskubide subjektiboak aitortzen dituzten egintza arautuak.
B - Eskubide subjektiboak edo interes legitimoak murrizten dituzten egintzak.
C - Lehenagoko jarduketetan erabilitako irizpidearekin edo organo aholku emaileek emandako irizpenarekin bat ez datozen egintzak.
D - Interesdunek proposatutako frogak baztertzen dituzten egintzak.

23. Además de por los demás medios previstos en las Normas Forales o disposiciones legales, las deudas de derecho público podrán extinguirse:

A - Por pago, prescripción, caducidad y compensación.
B - Por pago, prescripción y caducidad.
C - Por pago, prescripción y condonación.
D - Por pago, prescripción, compensación y condonación.

24. La reforma del Reglamento de las Juntas Generales de Gipuzkoa debe aprobarse por:

A - Mayoría absoluta.
B - Mayoría simple.
C - Mayoría de dos tercios.
D - Unanimidad de la Mesa y después mayoría absoluta.

25. En el procedimiento administrativo, tener relación de servicio con persona natural o jurídica interesada directamente en el asunto, o haberle prestado en los dos últimos años servicios profesionales de cualquier tipo y en cualquier circunstancia o lugar, es causa de:

A - Abstención.
B - Recusación.
C - Tanto de abstención como de recusación.
D - Ni de abstención ni de recusación.

26. La Ley 39/2015 no exige expresamente la motivación en relación con:

A - Los actos reglados que reconocen derechos subjetivos a los particulares.
B - Los actos que limitan derechos subjetivos a los particulares.
C - Los actos que se separen del criterio seguido en actuaciones precedentes o del dictamen de órganos consultivos.
D - Los actos que rechacen pruebas propuestas por los interesados.

27. Administrazioaren ondare erantzukizuneko kasu batek sorrarazitako kalte-ordaina:

A - Ezingo da inola ere gauzatan ordaindu, ordenamendu juridikoak ez baitu aukera hori jasotzen.

B - Gauzatan ordain daiteke, behar bezalako erreparazioa lortzeko egokiago bada eta interes publikoari komeni bazaio; betiere, interesduna ados badago.

C - Gauzatan ordain daiteke, behar bezalako erreparazioa lortzeko egokiago bada eta interes publikoari komeni bazaio; interesduna ados egon ala ez.

D - Beti ordeztu daiteke gauzazko ordain batez.

28. Hauetatik zein da hornidura-kontratu bat suntsiarazteko kausa bat?

A - Horniduran atzera egitea behin hornidura ematen hasita, edo hornidura zortzi hilabete baino gehiagoz etetea Administrazioaren erabakiz, baldintza-agirian epe laburragoren bat ezarri ezean.

B - Horniduran atzera egitea behin hornidura ematen hasita, edo hornidura hamar hilabete baino gehiagoz etetea Administrazioaren erabakiz, baldintza-agirian epe laburragoren bat ezarri ezean.

C - Kontratistaren borondatea, kontratuaren objektuari uko egitekoa, behin kontratuaren ehuneko hogei exekutatuta.

D - Kontratistaren borondatea, kontratuaren objektuari uko egitekoa, behin kontratuaren ehuneko berrogei exekutatuta.

29. Espainiako Konstituzioaren VIII. titulua ("Estatuaren lurralde antolamendua") aldatzeko ekimena:

A - Eusko Jaurlaritzak erabil dezake.

B - Eusko Legebiltzarrak erabil dezake.

C - Gobernu Zentralak bakarrik erabil dezake.

D - Gobernuak, Diputatuen Kongresuak eta Senatuak bakarrik erabil dezakete.

30. Autonomia Erkidegoen exekuziorako eskumenek:

A - Ez dute barruan hartzen zehapenen aplikazioa.

B - Ez dute barruan hartzen zehapenen aplikazioa, Eskualdaketa dekretuan bertan aurreikusten ez bada behintzat.

C - Zehapenen aplikazioa hartzen dute barruan, baina ez haien erregulazioa.

D - Zehapenen aplikazioa hartzen dute barruan, eta baita haien erregulazioa ere.

27. La indemnización procedente en un caso de responsabilidad patrimonial de la Administración:

A - En ningún caso puede recibirse en especie ya que el ordenamiento jurídico no contempla esta posibilidad.

B - Podrá sustituirse por una compensación en especie, cuando resulte más adecuado para lograr la reparación debida y convenga al interés público, siempre que exista acuerdo con el interesado.

C - Podrá sustituirse por una compensación en especie, cuando resulte más adecuado para lograr la reparación debida y convenga al interés público, con independencia de que exista o no acuerdo con el interesado.

D - Siempre puede ser sustituida por una indemnización en especie.

28. Entre las causas específicas de resolución del contrato de suministro se encuentra:

A - El desistimiento una vez iniciada la ejecución del suministro o la suspensión del suministro por un plazo superior a ocho meses acordada por la Administración, salvo que en el pliego se señale otro menor.

B - El desistimiento una vez iniciada la ejecución del suministro o la suspensión del suministro por un plazo superior a diez meses acordada por la Administración, salvo que en el pliego se señale otro menor.

C - La voluntad del contratista de renunciar al objeto del contrato una vez ejecutado el veinte por ciento del mismo.

D - La voluntad del contratista de renunciar al objeto del contrato una vez ejecutado el cuarenta por ciento del mismo.

29. La iniciativa para la reforma del Título VIII de la Constitución ("De la organización territorial del Estado") :

A - La puede ejercer el Gobierno Vasco.

B - La puede ejercer el Parlamento Vasco.

C - Sólo puede ejercerla el Gobierno Central.

D - Sólo pueden ejercerla el Gobierno, el Congreso de los Diputados y el Senado.

30. Las competencias autonómicas de ejecución:

A - No incluyen la aplicación de sanciones.

B - No incluyen la aplicación de sanciones, salvo que el decreto de traspaso así lo hubiera previsto.

C - Incluyen la aplicación de sanciones, aunque no su regulación.

D - Incluyen tanto la aplicación de sanciones como su regulación.

31. Interesdunaren eskaera administrazio isiltasunez baiesten den kasuetan, ebazpen espresua emateko betebeharra:

A - Ez dago legez araututa.

B - Isiltasuna berresteko edo partikularraren eskaera ezesteko egintza bat ematea ahalbidetzen du.

C - Isiltasuna berresteko egintza bat ematea ahalbidetzen du soilik.

D - Egintza bat ematea ahalbidetzen du, soilik, isiltasunaren esanahiaren aurkako ondorioak baditu.

32. Foru erakunde autonomoen gobernu eta administrazio organoen egintzek:

A - Administrazio bidea amaitzen dute beti.

B - Administrazio bidea amaitzen dute haien estatutuetan hala ezartzen denean.

C - Inoiz ez dute amaitzen administrazio bidea.

D - Administrazio bidea amaitzen dute, baina haien aurka berraztertzeko errekurtso inpropioa jar daiteke foru diputatuaren aurrean.

33. 1/2014 Legegintzako Dekretuak, apirilaren 15ekoak, Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Kontserbatzeko Legearen testu bategina onartzen duenak, xedatutakoaren arabera, natura-gune babestuak kategoria hauetakoren batean sailkatu behar dira:

A - Natura-parkea.

B - Biotopo babestua.

C - Zuhaitz apartekoa.

D - Erantzun guztiak zuzenak dira.

34. Administrazioarekiko auzietako jurisdikzioan, epaitza hauetariko bat emango du epaiak:

A - Administrazioarekiko auzi errekurtsoa onartezina dela, administrazioarekiko auzien epaitegiak edo auzitegiak jurisdikziorik ez duelako.

B - Ezin da deklaratu administrazioarekiko auzi errekurtsoa onartezina dela; beraz, epaiak administrazioarekiko auzi errekurtsoa baietsi edo ezetsi dezake soilik.

C - Errekurtsoaren onartezintasuna deklaratu daiteke epaia emateko momentuan, soilik hasierako idatzia epez kanpo aurkeztu bada.

D - Administrazioarekiko auzi errekurtsoa baiesten dela, xedapenak, jarduketak edo egintzak ordenamendu juridikoa hausten badu, agintea desbideratzea salbu.

31. La obligación de dictar resolución expresa en los casos de estimación de la solicitud del interesado por silencio administrativo:

A - No está regulada legalmente.

B - Permite dictar tanto un acto confirmatorio del silencio como denegatorio de la solicitud del particular.

C - Solo permite dictar un acto confirmatorio del silencio.

D - Solo permite dictar un acto si tiene efectos contrarios al sentido del silencio.

32. Los actos de los órganos de gobierno y administración de los organismos autónomos forales:

A - Siempre ponen fin a la vía administrativa.

B - Ponen fin a la vía administrativa cuando así se establezca en sus estatutos.

C - No ponen fin a la vía administrativa en ningún caso.

D - Ponen fin a la vía administrativa, pero cabe recurso de reposición impropio ante el Diputado o la Diputada foral.

33. Conforme al Decreto Legislativo 1/2014, de 15 de abril, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley de Conservación de la Naturaleza del País Vasco, los espacios naturales protegidos se clasificarán en alguna de las siguientes categorías:

A - Parque natural.

B - Biotopo protegido.

C - Árbol singular.

D - Todas las respuestas son correctas.

34. En la Jurisdicción Contencioso-Administrativa la sentencia podrá pronunciarse con alguno de los fallos siguientes:

A - Inadmisibilidad del recurso contencioso-administrativo porque el Juzgado o Tribunal Contencioso-Administrativo carezca de jurisdicción.

B - No cabe declarar la inadmisibilidad del recurso en el momento de dictar sentencia, de tal modo que la sentencia sólo podrá estimar o desestimar del recurso contencioso-administrativo.

C - Cabe declarar la inadmisibilidad del recurso en el momento de dictar sentencia sólo en el caso de que se hubiera presentado el escrito inicial del recurso fuera del plazo establecido.

D - La estimación del recurso contencioso-administrativo cuando la disposición, la actuación o el acto incurrieran en cualquier infracción del ordenamiento jurídico, salvo la desviación de poder.

35. Ez dago foru arau erreserbarik:

A - Tributuen ondoriozko partikularren arteko obligazioetarako.

B - Berandutza interesak ordaintzeko obligaziorako.

C - Zerga zorren ordainketak zatikatzeko eta geroratzeko.

D - Bide ekonomiko-administratiboan erreklamazio gai izango diren ekintzak zehazteko.

36. Zeini dagokio auzialdi bakarrean autonomia erkidegoen nahiz toki entitateen xedapen orokorrekin lotutako errekurtsoez arduratzea, Administrazioarekiko auzien jurisdikzioari buruzko Legeak xedatutakoaren arabera?

A - Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegiari.

B - Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegi Zentralari.

C - Autonomia erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzien salari.

D - Auzitegi Nazionaleko administrazioarekiko auzien salari.

37. Zer dira Estatuko merkataritza-sozietateak?

A - Zuzenbide publikoko entitateak, kasu batzuetan administrazio-ahalak baliatu ahal izango dituztenak, legeak aukera ematen badie.

B - Araubide juridiko pribatuaz arautzen diren pertsona juridikoak, kasu batzuetan administrazio-ahalak baliatu ahal izango dituztenak legeak aukera ematen badie.

C - Administrazio burujabeak, administrazio-ahalak baliatu ezin dituztenak, non eta estatuaren organo batek ez dizkien ordezten egintza administratibo baten bitartez.

D - Administrazio burujabeak, administrazio-ahalak baliatu ahal dituztenak.

38. Zein da kudeaketa gomendioaren helburua?

A - Jarduera material edo teknikoak egitea.

B - Xedapen administratiboak onartzea.

C - Izaera politiko hutseko erabakiak hartzea.

D - Gomendioaren xede den jarduera materiala txertatuko den edo hari eutsiko dioten egintza juridikoak egitea.

39. Zer da lanpostuz aldatu beharrik izan gabe graduak, kategoriak edo eskaloiak igotzea?

A - Barne sustapen bertikala.

B - Barne sustapen horizontala.

C - Karrera horizontala.

D - Karrera bertikala.

35. No existe reserva de norma foral para regular:

A - Las obligaciones entre particulares resultantes de los tributos.

B - La obligación de abonar intereses de demora.

C - Los fraccionamientos y aplazamientos de pago de las deudas tributarias.

D - La determinación de los actos susceptibles de reclamación en vía económico-administrativa.

36. El conocimiento en única instancia de los recursos que se deduzcan en relación con las disposiciones generales emanadas de las Comunidades Autónomas y de las Entidades locales corresponde según lo dispuesto en la Ley de la Jurisdicción contencioso-administrativa a:

A - El Juzgado de lo contencioso-administrativo.

B - El Juzgado Central de lo contencioso-administrativo.

C - La Sala de lo contencioso-administrativo del Tribunal Superior de Justicia de la Comunidad Autónoma.

D - La Sala de lo contencioso-administrativo de la Audiencia Nacional.

37. Las Sociedades Mercantiles estatales son:

A - Entidades de derecho público que pueden ejercer en algunos casos potestades administrativas si la Ley se las atribuye.

B - Personas jurídicas que se rigen por el ordenamiento jurídico-privado y que pueden ejercer en algunos casos potestades administrativas si la Ley se las atribuye.

C - Administraciones independientes que no pueden ejercer potestades administrativas, salvo que un órgano estatal se las delegue a través de un acto administrativo.

D - Administraciones independientes que pueden ejercer potestades administrativas.

38. La encomienda de gestión tiene por objeto:

A - La realización de actividades de carácter material o técnico.

B - La adopción de disposiciones administrativas.

C - La adopción de decisiones de carácter estrictamente político.

D - La adopción de actos jurídicos que den soporte o en los que se integre la concreta actividad material objeto de encomienda.

39. Consiste en la progresión de grados, categorías o escalones de ascenso, sin necesidad de cambiar de puesto de trabajo:

A - Promoción interna vertical.

B - Promoción interna horizontal.

C - Carrera horizontal.

D - Carrera vertical.

40. Bitarteko funtzionarioak izendatzen badira plaza hutsak daudenean, baldin eta ezin badira karrerako funtzionarioekin bete:

A - Plaza huts horiek enplegu-eskaintzan sartu beharko dira, izendapena egin deneko ekitaldi horretan bertan eta hala egiten ez bada amortizatu egin behar dira.

B - Plaza huts horiek enplegu-eskaintzan sartu beharko dira, izendapena egin denetik gehienez 5 urteko epean.

C - Plaza huts horiek enplegu-eskaintzan sartu beharko dira, izendapena egin deneko ekitaldi horretan bertan, eta, hori horrela egitea posible ez bada, hurrengo ekitaldian, lanpostua amortizatzen ez bada behintzat.

D - Plaza huts horiek enplegu-eskaintzan sartu ahal izango dira, izendapena egin deneko ekitaldi horretan bertan.

40. En el caso de los funcionarios interinos nombrados por la existencia de plazas vacantes cuando no sea posible su cobertura por funcionarios de carrera:

A - Dichas plazas vacantes deberán incluirse en la oferta de empleo correspondiente al ejercicio en que se produce su nombramiento y en caso contrario deberán ser amortizadas.

B - Dichas plazas vacantes deberán incluirse en la oferta de empleo correspondiente en el plazo máximo de 5 años desde su nombramiento.

C - Dichas plazas vacantes desempeñadas por funcionarios interinos deberán incluirse en la oferta de empleo correspondiente al ejercicio en que se produce su nombramiento y, si no fuera posible, en la siguiente, salvo que se decida su amortización.

D - Dichas plazas vacantes podrán incluirse en la oferta de empleo correspondiente al ejercicio en que se produce su nombramiento.

41. Zer motatakoak dira karrerako funtzionarioen ordainsariak?

A - Oinarrizkoak eta apartekoak.

B - Oinarrizkoak eta osagarriak.

C - Oinarrizkoak, osagarriak eta apartekoak.

D - Oinarrizkoak, osagarriak, apartekoak eta kalteordainak.

41. Las retribuciones de los funcionarios de carrera se clasifican en:

A - Básicas y extraordinarias.

B - Básicas y complementarias.

C - Básicas, complementarias y extraordinarias.

D - Básicas, complementarias, extraordinarias e indemnizaciones.

42. Behin-behineko langileen hautapenean:

A - Prozedura bizkorrak erabili behar dira, betiere, berdintasun-, merezimendu-, gaitasun- eta publikotasun-printzipioak errespetatuta.

B - Merezimenduen lehiaketa bitartez egin behar da.

C - Izendapen librearen bidez egin behar da, aurrez deialdi publikoa eginda.

D - Izendatzea librea da.

42. La selección del personal eventual:

A - Habrá de realizarse mediante procedimientos ágiles que respetarán en todo caso los principios de igualdad, mérito, capacidad y publicidad.

B - Habrá de realizarse mediante concurso de méritos.

C - Habrá de realizarse mediante libre designación previa convocatoria pública.

D - Su nombramiento es libre.

43. Batasuneko Zuzenbidean, erabakiak:

A - Estatuei soilik zuzen dakizkieke, eta estatuak soilik behartu ditzakete.

B - Partikularrei soilik zuzen dakizkieke, eta partikularrak soilik behartu ditzakete.

C - Estatuei eta partikularrei zuzen dakizkieke, eta biak behartu ditzakete.

D - Betebeharra bete ez duten estatuei soilik zuzen dakizkieke, eta horiek soilik behartu.

43. Las decisiones en el Derecho de la Unión Europea:

A - Sólo pueden dirigirse y obligar a los Estados.

B - Sólo pueden dirigirse y obligar a los particulares.

C - Pueden dirigirse y obligar tanto a los Estados como a los particulares.

D - Sólo pueden dirigirse y obligar a los Estados incumplidores.

44. Epaiak arrazoituak izango dira:

A - Beti, legez ezarrita baitago.

B - Zigor arloko epaien kasuan soilik, Konstituzioan ezarrita baitago.

C - Zigor arloko kondena epaien kasuan soilik, Konstituzioan ezarrita baitago.

D - Beti, Konstituzioan ezarrita baitago.

44. La motivación de las sentencias es un requisito:

A - Legalmente establecido para todas ellas.

B - Constitucionalmente establecido sólo en el caso de las sentencias penales.

C - Constitucionalmente establecido sólo en el caso de las sentencias penales condenatorias.

D - Constitucionalmente establecido para todas ellas.

45. Zer gai ez da administrazioarekiko auzietako jurisdikzioaren eskumenekoa?

A - Zuzenbide Publikoko Korporazioek beren eginkizun publikoak betetzerakoan emandako egintza eta xedapenei buruzko gaiak.

B - Epaitegi eta auzitegien eta Administrazio publikoaren arteko jurisdikzio gatazkak, eta administrazio baten organoen arteko atribuzio gatazkak.

C - Administrazio kontratuak, eta administrazio publikoen kontratazio legeriaren mendeko gainerako kontratuak prestatzeko eta esleitzeko egintzak.

D - Administrazio publikoen ondare erantzukizuna, edozein delarik ere jardueraren izaera edo sorburu duen harreman mota.

46. Zer gelditzen da 38/2003 Lege Orokorrak, azaroaren 17koak, Dirulaguntzei buruzkoak, araututako eremutik kanpo?

A - Onuradunak aurrez eskatu gabe ematen diren sariak.

B - Hauteskundeen Araubide Orokorrari buruzko Lege Organikoak aurreikusten dituen dirulaguntzak.

C - Alderdi Politikoen Finantzaketari buruzko Lege Organikoak aurreikusten dituen dirulaguntzak.

D - Erantzun guztiak zuzenak dira.

47. Egitate bidea eratzen duen jarduketa material bat aurkaratzeko, interesdunak hala jardun duen administrazio publikoari errekerimendua egin, eta jarduera horri utz diezaiola galdatu badio:

A - Hautazkoa da.

B - Ezinbesteko baldintza da egitate bidea dagoela frogatzeko.

C - Horren bidez zehazten da noiz hasten den administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkezteko epea.

D - Horren bidez zehazten da noiztik aurrera har daitekeen aintzat egitate-bidea gertatu dela.

45. No corresponde al ámbito competencial de la jurisdicción contencioso-administrativa el conocimiento de:

A - Las cuestiones relativas a los actos y disposiciones de las Corporaciones de Derecho público, adoptados en el ejercicio de funciones públicas.

B - Los conflictos de jurisdicción entre los Juzgados y Tribunales y la Administración pública y los conflictos de atribuciones entre órganos de una misma Administración.

C - Los contratos administrativos y los actos de preparación y adjudicación de los demás contratos sujetos a la legislación de contratación de las Administraciones públicas.

D - La responsabilidad patrimonial de las Administraciones públicas, cualquiera que sea la naturaleza de la actividad o el tipo de relación de que derive.

46. Quedan excluidos del ámbito de aplicación de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones:

A - Los premios que se otorguen sin la previa solicitud del beneficiario.

B - Las subvenciones previstas en la Ley Orgánica del Régimen Electoral General.

C - Las subvenciones reguladas en la Ley Orgánica de Financiación de los Partidos Políticos.

D - Todas las respuestas son correctas.

47. Para impugnar una actuación material constitutiva de una vía de hecho, el haber formulado requerimiento a la Administración Pública actuante por parte del interesado, solicitando su cese:

A - Es potestativo.

B - Es requisito necesario para poder probar la existencia de vía de hecho.

C - Determina el momento en el que se inicia el plazo para la interposición del recurso contencioso-administrativo.

D - Determina el momento a partir del cual se puede considerar que se ha producido la vía de hecho.

48. Zer ezin du barne hartu administrazioarekiko auzi errekurtso baten epaiaren baiespenak?

A - Zuzenbidearen araberakoa ez dela dioen deklarazioa eta, hala badagokio, errekurritutako xedapen edo egintza deuseztatzea, edo aurkaraturiko jarduketa uzteko edo aldatzeko agindua.

B - Banakako egoera juridiko bat aitortzea eta berraztertzea, eta erabat berraztertzeko behar diren neurri guztiak erabakitzea.

C - Epaiak erabakitakoa betetzeko epe bat ezartzea, neurria egintza bat ematea edo juridikoki nahitaezkoa den jarduketa bat egitea bada.

D - Nola idatzirik geratu behar duten xedapen orokor deuseztatu baten ordezko manuek, ez eta nola geratu behar duten deuseztaturiko egintzen irizpidezko edukiak ere.

49. Salatzaileak arau hauste administratibo batean parte hartu badu eta beste arau hausle batzuk baldin badira, zer egingo du prozedura ebazteko eskumena duen organoak?

A - Salbuetsi egin beharko du salatzailea legokiokeen isuna ordaintzetik edo diruzkoa ez den beste zehapenen batetik, bera baldin bada prozedura hasteko edo arau haustea egiaztatzeko froga-elementuak ekartzen dituen lehena, betiere elementu horien berri emateko unean ez bada daturik aski zehapen hori agintzeko eta egindako kaltea erreparatzen bada.

B - Salatzaileari legokiokeen isunaren zenbatekoa edo larritasuna murriztu beharko du, bera baldin bada prozedura hasteko edo arau haustea egiaztatzeko froga-elementuak ekartzen dituen lehena, betiere elementu horien berri emateko unean ez bada daturik aski zehapen hori agintzeko eta egindako kaltea erreparatzen bada.

C - Inola ere ezingo du salatzaileari legokiokeen isunaren zenbatekoa murriztu, ez eta diruzkoa ez den beste zehapenen bat ere, halakorik balego.

D - Salbuetsi egin beharko du salatzailea legokiokeen isuna ordaintzetik, baldin eta prozedura hasteko edo arau haustea egiaztatzeko froga-elementuak ekartzen baditu, aurrez frogak aurkeztu izan diren ala ez aintzat hartu gabe.

48. La estimación por sentencia de un recurso contencioso-administrativo no puede contener:

A - La declaración de no ser conforme a Derecho y, en su caso, la anulación total o parcial de la disposición o acto recurrido o el cese o modificación de la actuación impugnada.

B - El reconocimiento y restablecimiento de una situación jurídica individualizada, y la adopción de cuantas medidas sean necesarias para el pleno restablecimiento de la misma.

C - La fijación de un plazo para que se cumpla lo establecido en la sentencia en los casos en que la medida consista en la emisión de un acto o en la práctica de una actuación jurídicamente obligatoria.

D - La determinación de la forma en que han de quedar redactados los preceptos de una disposición general en sustitución de los que se anulen ni la determinación del contenido discrecional de los actos anulados.

49. Cuando el denunciante haya participado en la comisión de una infracción administrativa y existan otros infractores, el órgano competente para resolver el procedimiento:

A - Deberá eximir al denunciante de la sanción correspondiente cuando sea el primero en aportar elementos de prueba que permitan iniciar el procedimiento o comprobar la infracción, siempre y cuando en el momento de aportarse aquellos no se disponga de elementos suficientes para ordenar la misma y se repare el perjuicio causado.

B - Deberá reducir la cuantía o la gravedad de la sanción que corresponda al denunciante cuando sea el primero en aportar elementos de prueba que permitan iniciar el procedimiento o comprobar la infracción, siempre y cuando en el momento de aportarse aquellos no se disponga de elementos suficientes para ordenar la misma y se repare el perjuicio causado.

C - En ningún caso podrá reducir el importe del pago de la multa que le correspondería al denunciante ni, en su caso, la sanción de carácter no pecuniario.

D - Deberá eximir al denunciante de la sanción correspondiente siempre que aporte elementos de prueba que permitan iniciar el procedimiento o comprobar la infracción, con independencia de que se hayan presentado pruebas con anterioridad.

50. Ez dira lotuta egongo aurretiazko fiskalizazioari:

A - Gipuzkoako Lurralde Historikoko Aurrekontu Orokorretan jasota dauden dirulaguntza izendunak.

B - Kontratazio arloko funtsezko araudian zenbatekoaren arabera munta txikikotzat hartutako kontratuak.

C - Obra eta zerbitzu kontratuak eta horiek indarrean dauden bitartean gerta daitezkeen gorabeherak.

D - Hornidura kontratuak eta horiek indarrean dauden bitartean gerta daitezkeen gorabeherak.

51. Aldi baterako enpresa elkarte batekin kontratu administratibo bat izenpetu bada eta elkartea osatzen duten enpresetako bat hartzekodunen lehiaketan sartua deklaratzen badute:

A - Kontratua gainerako enpresekin egikaritzen jarraituko da, likidazio fasea ireki bada ere, betiere gainerakoek exijitzen diren kaudimen edo sailkapen baldintzak betetzen badituzte.

B - Kontratua gainerako enpresekin egikaritzen jarraituko da likidazio faseraino, betiere gainerakoek exijitzen diren kaudimen edo sailkapen baldintzak betetzen badituzte.

C - Kontratua suntsiaraziko da, kontratazio organoak ofizioz hartutako erabakiaz.

D - Kontratua etengo da, kontratazio organoak ofizioz hartutako erabakiaz.

52. Herriaren Defendatzaileak Administrazioaren jarduna gainbegiratzen du:

A - Interesdunak eskatuta eta ofizioz.

B - Edonork eskatuta eta ofizioz.

C - Nazionalitate espainiarra duen edozeinek eskatuta.

D - Nazionalitate espainiarra edo herritartasun europarra duen edozeinek eskatuta.

53. Nolakotzat jotzen dira neurrira garatutako ordenagailu-programak eskuratzeko kontratuak?

A - Hornidura kontratuak.

B - Zerbitzu-kontratuak.

C - Zerbitzu-emakidako kontratuak.

D - Kontratu mistoak.

50. No estarán sometidos a fiscalización previa:

A - Las subvenciones no asignadas nominativamente en los Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

B - Los contratos menores definidos por su cuantía en la normativa sustantiva en materia de contratación.

C - Los contratos de obras y servicios y cuantas incidencias pudieran producirse durante la vigencia de los mismos.

D - Los contratos de suministros y cuantas incidencias pudieran producirse durante la vigencia de los mismos.

51. En el caso de que se haya suscrito un contrato administrativo con una unión temporal de empresas, si alguna de las empresas integrantes de la unión temporal fuese declarada en concurso de acreedores:

A - Continuará la ejecución del contrato con la empresa o empresas restantes, aun cuando se hubiera abierto la fase de liquidación, siempre que estas cumplan los requisitos de solvencia o clasificación exigidos.

B - Continuará la ejecución del contrato hasta la fase de liquidación con la empresa o empresas restantes, siempre que estas cumplan los requisitos de solvencia o clasificación exigidos.

C - Dará lugar a la resolución del contrato que será acordada de oficio por el órgano de contratación.

D - Dará lugar a la suspensión del contrato que será acordada de oficio por el órgano de contratación.

52. El Defensor del Pueblo supervisa la actuación de la Administración:

A - A instancia de parte interesada y de oficio.

B - A instancia de cualquier persona y de oficio.

C - A instancia de cualquier persona con nacionalidad española.

D - A instancia de cualquier persona con nacionalidad española o ciudadanía europea.

53. Los contratos de adquisición de programas de ordenador desarrollados a medida son:

A - Contratos de suministro.

B - Contratos de servicios.

C - Contratos de concesión de servicios.

D - Contratos mixtos.

54. Administrazioarekiko Auzietako Jurisdikzioaren Legeak 78. artikuluan xedatutakoaren arabera, honako hauek arduratu ahal izango dira prozedura laburtuaren bitartez jarduteaz:

A - Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegiak eta Administrazioarekiko Auzien Epaitegi Zentralak.

B - Auzitegi Ekonomiko-Administratibo Zentrala.

C - Auzitegi Goreneko Administrazioarekiko Auzietarako Sala.

D - Soilik Administrazioarekiko Auzien Epaitegiak.

55. Zein ez dira hitzarmentzat hartzen, 40/2015 Legeak xedatutakoaren arabera?

A - Jarduketako Protokolo Orokorrak.

B - Lurralde administrazio publiko baten eta berari lotutako edo beraren mendeko zuzenbide publikoko entitateen artean egindako adostasunak.

C - Zuzenbide publikoko entitate baten eta zuzenbide pribatuko subjektu baten artean sinatutako adostasunak.

D - Administrazio publiko biren edo gehiagoren artean izenpetutako adostasunak.

56. Gipuzkoako Foru Ogasunaren obligazio instituzionalak dira:

B - Prozedura iraungitzen denean.
C - Administrazio isiltasunaz ezesten denean.
D - Ebazteak betebehar izateari uzten dionean.

101. Nahitaezko desjabetzapena egin ahal izateko, ezinbestekoa da aurrez herri onurako edo interes sozialeko aitorpena ematea desjabetzen den objektua xedatuko den helburuari. Ondasun higigarriei dagokienez:

A - Herri onurako aitorpena berariaz eta bakantasunez eman beharko da dekretu bidez.
B - Herri onurako aitorpena egin daiteke soilik ebazpen bidez.
C - Herri onurako aitorpena berariaz eta bakantasunez eman beharko da kasu bakoitzean, non eta Nahitaezko Desjabetzapen Legeak edo beste lege batek ez duen baimentzen desjabetzapena ondasun kategoria berezi batentzat; halakoetan, aski izango da Ministroen Kontseiluaren edo Autonomia Erkidegoaren Gobernu Kontseiluaren erabakia.
D - Herri onurako aitorpena inplizituki ulertutzat jotzen da Estatuaren, Autonomia Erkidegoaren, Probintziaren eta Udalaren obra eta zerbitzu plan guztietan.

102. Aldekoak ez diren edo eskubide indibidualak murrizten dituzten xedapen zehatzaileen atzeraeragina ezartzen duten administrazio xedapenak:

A - Baliozkoak izango dira interes publikoak hala justifikatzen duen guztietan.
B - Deusezak izango dira.
C - Deuseztagarriak izango dira baina konbalidatu egin daitezke.
D - Irregularrak baina baliozkoak izango dira.

103. Noiz onetsi dezake ministro batek zuzenean lege bat garatzen duen erregelamendu bat?

A - Soilik lege batek erregelamendu garapenerako gaikuntza ematen badio eta salbuespena justifikatuta badago.
B - Edozein kasutan egin dezake, Konstituzioaren arabera Ministro Kontseiluko kide baita.
C - Ezin du egin inola ere, Ministro Kontseiluari baitagokio hori.
D - Egin dezake, Gobernuak erregelamenduak emateko ahala eskuordetu dion kasuetan.

100. En los procedimientos iniciados de oficio, en que la Administración ejercite potestades sancionadoras o, en general, de intervención, susceptibles de producir efectos desfavorables o de gravamen, el vencimiento del plazo máximo establecido sin que se haya dictado y notificado resolución expresa producirá:

A - El desistimiento de la Administración.
B - La caducidad del procedimiento.
C - La desestimación por silencio administrativo.
D - El cese de la obligación de resolver.

101. Para proceder a la expropiación forzosa será indispensable la previa declaración de utilidad pública o interés social del fin a que haya de afectarse el objeto expropiado. Respecto a los bienes muebles:

A - La utilidad pública deberá siempre ser declarada expresa y singularmente mediante Decreto.
B - La utilidad pública únicamente podrá ser declarada mediante Resolución.
C - La utilidad pública habrá de ser declarada expresa y singularmente mediante Ley en cada caso, a no ser que la Ley de Expropiación Forzosa u otra Ley hayan autorizado la expropiación para una categoría especial de bienes, en cuyo supuesto bastará el acuerdo del Consejo de Ministros o del Consejo de Gobierno de la Comunidad Autónoma.
D - La utilidad pública se entiende implícita en todos los planes de obras y servicios del Estado, la Comunidad Autónoma, la Provincia y el Municipio.

102. Las disposiciones administrativas que establezcan la retroactividad de disposiciones sancionadoras no favorables o restrictivas de derechos individuales:

A - Serán válidas siempre que así lo justifique el interés público.
B - Serán nulas.
C - Serán anulables pero susceptibles de convalidación.
D - Serán irregulares pero válidas.

103. Un Ministro puede aprobar un reglamento que desarrolle directamente una Ley:

A - Solo en el caso de que una Ley lo habilite expresamente y justifique su excepcionalidad.
B - Puede hacerlo en todo caso ya que en virtud de la Constitución es miembro del Consejo de Ministros.
C - No puede hacerlo en ningún caso ya que corresponde al Consejo de Ministros.
D - Puede hacerlo en los casos en que el Gobierno le haya delegado la potestad reglamentaria.

104. Nola jotzen da herri onurakotzat Gipuzkoako Lurralde Historikoan kokatutako mendi bat?

A - Diputatuen Kontseiluaren foru dekretu bidez.
B - Eskumena duen departamentuko foru diputatuaren foru agindu bidez.
C - Gipuzkoako Lurralde Historikoko Batzar Nagusien foru arauz.
D - Mendietako zuzendari nagusiaren ebazpenaz.

105. Xedapen orokor bat aurkaratzen bada, eta aurkaraturiko manuen indarra eteteko eskatzen bada, kautela neurria eska daiteke:

A - Errekurtsoaren hasierako idatzian, berdin errekurtsoa jartzekoa edo demanda jartzekoa izan.
B - Errekurtsoa jarri aurretik.
C - Demandari erantzuteko idazkia baino lehen.
D - Ezin da kautela neurri hau eskatu.

106. Zer gai geratzen dira negoziazio kolektiboaren beharretik salbuetsita, herri langileen lan baldintzei dagokienez?

A - Funtzionarioen lan baldintzen eta ordainsarien gaiak, lege mailako arau bat eduki beharra eskatzen dutenak.
B - Enplegu publikora iristeko eta lanbide sustapena egiteko sistemak, irizpideak, organoak eta prozedurak finkatzeko erregulazioa eta mugapen zehatza, kasuan-kasuan.
C - Enplegu publikoaren eskaintzari buruzko irizpide orokorrak.
D - Laneko egutegi, ordutegi, lansaio, opor, baimen eta mugikortasun funtzional nahiz geografikoari buruzko gaiak.

107. 39/2015 Legearen arabera, egintza administratibo baten jakinarazpena egitean, egintzaren testu osoa jaso arren, ez bazaie erreferentziarik egiten aurkaratzeko bidezko diren baliabideei:

A - Egintzak ondorioak ditu, baldin eta jakinarazpena 10 eguneko epean egiten bada, ebazpenaren testu osoa jasotzen baitu.
B - Egintzak ondorioak ditu interesdun partikularrak bidezkoa den errekurtsoa epearen barruan aurkezten badu.
C - Egintzak ondorioak ditu interesdun partikularrak bidezkoa den errekurtsoa aurkezten duen unetik aurrera.
D - Egintzak ez du inoiz ondoriorik izango, erabateko deuseztasuna dakarkion akats bat baitu, interesdun partikularrari babesgabetasun materiala eragiten diolako.

104. La declaración de utilidad pública de un monte ubicado en el Territorio Histórico de Gipuzkoa se realizará:

A - Por decreto foral del Consejo de Gobierno Foral.
B - Por orden foral del Diputado o Diputada titular del Departamento competente.
C - Por norma foral dictada por las Juntas Generales del Territorio Histórico de Gipuzkoa.
D - Por resolución del Director o Directora General de Montes.

105. En el caso de que se impugne una disposición general, y se solicitare la suspensión de la vigencia de los preceptos impugnados, la medida cautelar se puede solicitar:

A - En el escrito inicial del recurso, bien sea el de interposición o el de demanda.
B - Antes de la interposición del recurso.
C - Antes del escrito de contestación a la demanda.
D - No cabe esta medida cautelar.

106. Quedan excluidas de la obligatoriedad de la negociación colectiva de las condiciones de trabajo de los/as funcionarios/as públicos/as las siguientes materias:

A - Las que afecten a las condiciones de trabajo y a las retribuciones de los funcionarios, cuya regulación exija norma con rango de Ley.
B - La regulación y determinación concreta, en cada caso, de los sistemas, criterios, órganos y procedimientos de acceso al empleo público y la promoción profesional.
C - Los criterios generales sobre ofertas de empleo público.
D - Las referidas a calendario laboral, horarios, jornadas, vacaciones, permisos, movilidad funcional y geográfica.

107. De acuerdo con lo dispuesto en la Ley 39/2015, un acto administrativo en cuya notificación, aun conteniendo el texto íntegro de la resolución, no se haga referencia a los recursos que son procedentes para su impugnación:

A - Es eficaz siempre que la notificación se realice en el plazo de 10 días, dado que contiene el texto íntegro de la resolución.
B - Es eficaz si el propio particular interesado interpone el recurso procedente en plazo.
C - Es eficaz desde el momento en el que el propio particular interesado interponga el recurso procedente.
D - Nunca será eficaz pues es un acto afectado por un vicio de nulidad de pleno derecho al causar indefensión material en el particular interesado.

108. Zer dio Lurralde Historikoen Legearen hondar klausulak?

A - Erkidego osorako erakundeei legez esleitu ez zaizkien eskumenak lurralde historikoei dagozkie.

B - Lurralde Historikoetako foru erakundeei legez esleitu ez zaizkien eskumenak Erkidego osorako erakundeei dagozkie.

C - Eusko Legebiltzarrari legez esleitu ez zaizkion eskumenak Batzar Nagusiei dagozkie.

D - Lege horrek ez du hondar klausularik.

109. Hauetako zeinek ez du interesdun izaerarik prozeduran?

A - Eskubide edo interes legitimo indibidual nahiz kolektiboen titular gisa prozedura hori sustatu dutenek.

B - Prozedura hasi ez izan arren, hartuko den erabakiak eragin ditzakeen eskubideak dituen pertsona orok.

C - Behin betiko ebazpena eman aurretik prozeduran agertzeko eskaera egiten duen pertsona orok, uki ditzakeen eskubideen edo interesen titular ez bada ere.

D - Interesdun kondizioa, prozedura dagoen egoeran egonda ere, harreman juridiko eskualdagarriren baten ondorioz sortzen bada.

110. Ezin delegatuko da eskumenik kasu honetan:

A - Zehatzeko ahalmena.

B - Xedapen administratiboak onartzea.

C - Errekurtsoak ebaztea.

D - Izaera orokorreko xedapenak onartzea.

111. Kontratazio-organoak behin-behineko berme bat eskatzea erabaki duen kasuetan, administrazio-klausula partikularren agirietan, behin-behineko berme horren zenbatekoa zehaztuko da. Ezingo da izan…

A - Kontratuaren lizitazioaren oinarrizko aurrekontuaren 100eko 5 baino handiagoa, balio erantsiaren gaineko zerga barne hartuta.

B - Kontratuaren lizitazioaren oinarrizko aurrekontuaren 100eko 5 baino handiagoa, balio erantsiaren gaineko zerga alde batera utzita.

C - Kontratuaren lizitazioaren oinarrizko aurrekontuaren 100eko 3 baino handiagoa, balio erantsiaren gaineko zerga barne hartuta.

D - Kontratuaren lizitazioaren oinarrizko aurrekontuaren 100eko 3 baino handiagoa, balio erantsiaren gaineko zerga alde batera utzita.

108. La conocida como Ley de Territorios Históricos establece como cláusula residual que:

A - Las competencias no atribuidas legalmente a las Instituciones Comunes pertenecen a los Territorios Históricos.

B - Las competencias no atribuidas legalmente a los Órganos Forales de los Territorios Históricos corresponden a las Instituciones Comunes.

C - Las competencias no atribuidas legalmente al Parlamento Vasco corresponden a las Juntas Generales.

D - No establece cláusula residual alguna.

109. No reúnen la condición de interesados en el procedimiento:

A - Quienes lo promuevan como titulares de derechos o intereses legítimos individuales o colectivos.

B - Los que, sin haber iniciado el procedimiento, tengan derechos que puedan resultar afectados por la decisión que en el mismo se adopte.

C - Cualquier persona que solicite personarse en el procedimiento antes de que se dicte resolución definitiva aunque no sea titular de un derecho o interés afectado.

D - El derecho-habiente del interesado cualquiera que sea el estado del procedimiento siempre que dicha condición de interesado derive de alguna relación jurídica transmisible.

110. En ningún caso podrá ser objeto de una delegación de competencias:

A - La potestad sancionadora.

B - La adopción de actos administrativos definitivos.

C - La resolución de los recursos.

D - La adopción de disposiciones de carácter general.

111. En los casos en que el órgano de contratación haya acordado la exigencia de garantía provisional, en los pliegos de cláusulas administrativas particulares se determinará el importe de la misma, que no podrá ser:

A - Superior a un 5 por 100 del presupuesto base de licitación del contrato, incluido el Impuesto sobre el Valor Añadido.

B - Superior a un 5 por 100 del presupuesto base de licitación del contrato, excluido el Impuesto sobre el Valor Añadido.

C - Superior a un 3 por 100 del presupuesto base de licitación del contrato, incluido el Impuesto sobre el Valor Añadido.

D - Superior a un 3 por 100 del presupuesto base de licitación del contrato, excluido el Impuesto sobre el Valor Añadido.

112. Enpresaburu nagusia erantzule solidarioa izango da kontratistek eta azpikontratistek beren langileekin soldatak direla-eta hartutako betebeharretan:

A - Enkarguaren amaieratik hasita, hurrengo bost urtean.

B - Enkarguaren amaieratik hasita, hurrengo hiru urtean.

C - Enkarguaren amaieratik hasita, hurrengo urtean.

D - Aurreko erantzun guztiak okerrak dira.

113. Lan kontratua eten daiteke:

A - Alderdien arteko akordioaz.

B - Langilea askatasunik gabe geratu bada, soilik kondena epaia dagoenean.

C - Langilearen aldebakarreko erabakiaz.

D - Enpresarioaren aldi baterako ezgaitasunaz.

114. Zein da erantzun zuzena?

A - Erantzukizun mugatuko sozietate baten kapitala ezin izango da hiru mila euro baino gutxiagokoa izan eta sozietate anonimo batena ezin izango da hirurogei mila euro baino gutxiagokoa izan.

B - Erantzukizun mugatuko sozietate baten kapitala ezin izango da hiru mila euro baino gutxiagokoa izan eta sozietate anonimo batena ezin izango da berrogeita hamar mila euro baino gutxiagokoa izan.

C - Erantzukizun mugatuko sozietate baten kapitala ezin izango da hamar mila euro baino gutxiagokoa izan eta sozietate anonimo batena ezin izango da berrogeita hamar mila euro baino gutxiagokoa izan.

D - Erantzukizun mugatuko sozietate baten kapitala ezin izango da bi mila euro baino gutxiagokoa izan eta sozietate anonimo batena ezin izango da ehun mila euro baino gutxiagokoa izan.

115. Hartzekodunen zerrendan jasotako kredituak izan daitezke:

A - Nagusiak, arruntak eta ezohikoak.

B - Pribilegiatuak, arruntak eta mendekoak.

C - Pribilegiatuak eta arruntak.

D - Arruntak eta mendekoak.

112. El empresario principal responderá solidariamente de las obligaciones de naturaleza salarial contraídas por los contratistas y subcontratistas con sus trabajadores:

A - Durante los cinco años siguientes a la finalización del encargo.

B - Durante los tres años siguientes a la finalización del encargo.

C - Durante el año siguiente a la finalización del encargo.

D - Ninguna de las respuestas anteriores es correcta.

113. El contrato de trabajo podrá suspenderse por:

A - Mutuo acuerdo de las partes.

B - Privación de libertad del trabajador, únicamente cuando exista sentencia condenatoria.

C - Por decisión unilateral del trabajador.

D - Incapacidad temporal del empresario.

114. Señale la respuesta correcta:

A - El capital de la sociedad de responsabilidad limitada no podrá ser inferior a tres mil euros y el de la sociedad anónima no podrá ser inferior a sesenta mil euros.

B - El capital de la sociedad de responsabilidad limitada no podrá ser inferior a tres mil euros y el de la sociedad anónima no podrá ser inferior a cincuenta mil euros.

C - El capital de la sociedad de responsabilidad limitada no podrá ser inferior a diez mil euros y el de la sociedad anónima no podrá ser inferior a cincuenta mil euros.

D - El capital de la sociedad de responsabilidad limitada no podrá ser inferior a dos mil euros y el de la sociedad anónima no podrá ser inferior a cien mil euros.

115. Los créditos incluidos en la lista de acreedores se clasificarán, a efectos del concurso, en:

A - Principales, ordinarios y extraordinarios.

B - Privilegiados, ordinarios y subordinados.

C - Privilegiados y ordinarios.

D - Ordinarios y subordinados.

116. Sozietate anonimoaren kapitala banatua dagoen akzioek:

A - Bazkideek guztiz harpidetuta egon behar dute, eta, eraketa eskritura emateko edo sozietatearen kapitala handitzeko unean, ordainduta egon behar du horietako bakoitzaren balio nominalaren laurdenak gutxienez.

B - Bazkideek guztiz harpidetuta egon behar dute, eta, eraketa eskritura emateko edo sozietatearen kapitala handitzeko unean, ordainduta egon behar du horietako bakoitzaren balio nominalaren erdiak gutxienez.

C - Bazkideek guztiz harpidetuta egon behar dute, eta, eraketa eskritura emateko edo sozietatearen kapitala handitzeko unean, ordainduta egon behar dute horietako bakoitzaren balio nominalaren bi herenek gutxienez.

D - Bazkideek guztiz harpidetuta egon behar dute, eta, eraketa eskritura emateko edo sozietatearen kapitala handitzeko unean, ordainduta egon behar du horietako bakoitzaren balio nominal osoak.

116. Las acciones en que se divida el capital de la sociedad anónima:

A - Deberán estar íntegramente suscritas por los socios, y desembolsado, al menos, en una cuarta parte el valor nominal de cada una de ellas en el momento de otorgar la escritura de constitución de la sociedad o de ejecución del aumento del capital social.

B - Deberán estar íntegramente suscritas por los socios, y desembolsado, al menos, en la mitad el valor nominal de cada una de ellas en el momento de otorgar la escritura de constitución de la sociedad o de ejecución del aumento del capital social.

C - Deberán estar íntegramente suscritas por los socios, y desembolsado, al menos, en dos terceras partes el valor nominal de cada una de ellas en el momento de otorgar la escritura de constitución de la sociedad o de ejecución del aumento del capital social.

D - Deberán estar íntegramente suscritas por los socios, y desembolsado en su totalidad el valor nominal de cada una de ellas en el momento de otorgar la escritura de constitución de la sociedad o de ejecución del aumento del capital social.

117. Zer da Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga?

A - Zerga itundua, unean-unean Estatuak ezartzen dituen edukizko eta formazko arau berberez araupetua.

B - Zerga itundua, araudi autonomokoa.

C - Zerga itundua gainerako autonomia erkidegoetan ezarritako edukizko eta formazko arau berberez araupetua.

D - Zerga itundua, araudi komunekoa.

117. El Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas es:

A - Un tributo concertado que se regirá por las mismas normas sustantivas y formales establecidas en cada momento por el Estado.

B - Un tributo concertado de normativa autónoma.

C - Un tributo concertado que se regirá por las mismas normas sustantivas y formales establecidas en el resto de Comunidades Autónomas.

D - Un tributo concertado de normativa común.

118. Nola deitzen dira zuzenbide publikoko entitateak, nortasun juridiko propio eta bereizia dutenak, administrazio publiko batzuek edo sektore publiko instituzionaleko entitate batzuek sortzen dituztenak beren artean edo entitate pribatuen parte-hartzearekin, guztien interes komuneko jarduerak egiteko beren eskumenen eremuan?

A - Erakunde publikoak.

B - Partzuergoak.

C - Fundazio publikoak.

D - Enpresa-entitate publikoak.

118. Las entidades de derecho público, con personalidad jurídica propia y diferenciada, creadas por varias Administraciones Públicas o entidades integrantes del sector público institucional, entre sí o con participación de entidades privadas, para el desarrollo de actividades de interés común a todas ellas dentro del ámbito de sus competencias se denominan:

A - Organismos públicos.

B - Consorcios.

C - Fundaciones Públicas.

D - Entidades Públicas Empresariales.

119. Senatuak lege proiektu bati egindako zuzenketak:

A - Legearen testuan sartzen dira automatikoki.
B - Legearen testuan sartzen dira, baldin eta Kongresuak ez badu beretzat eskatzen haren ezagutza.
C - Legearen testuan sartzen dira, baldin eta Kongresuak zuzenketen aldeko botoa eman badu, gehiengo soilaz.
D - Legearen testuan sartzen dira, bakarrik, baldin eta Gobernuak proiektua erretiratzen ez badu.

120. Udal erregelamenduak eta ordenantzak:

A - Arau mailak bereizten ditu.
B - Arautzen dituzten esparruek bereizten dituzte.
C - Arau mailak eta arautzen dituzten esparruak bereizten dituzte.
D - Juridikoki ez dira bereizten.

121. Gobernuaren Errege Dekretua:

A - Erregelamenduzko xedapena da beti.
B - Egintza administratiboa da beti.
C - Lege indarreko xedapena da beti.
D - Erregelamenduzko xedapena zein egintza administratiboa izan daiteke.

122. Gizarte Segurantzaren afiliazioa egin ahalko da:

A - Horretara behartuta dauden pertsonek eta entitateek eskatuta.
B - Interesdunek eskatuta.
C - Ofizioz, Gizarte Segurantzaren Administrazioak eginda.
D - Erantzun guztiak ondo daude.

123. Konpromiso kredituak:

A - Aurrekontuko kredituak dira, eta xedea dute Estatuari kupoa ordaintzea, Euskal Autonomia Erkidegoari ekarpena ordaintzea eta, zerga itunduetan duten partaidetzagatik, Gipuzkoko lurralde historikoko udalei ekarpena ordaintzea.
B - Urte anitzeko gastuen multzoa dira, geroko ekitaldiei buruzkoak, ekitaldian konprometitu daitezkeenak.
C - Pertsonalari, finantza-kargei eta zorpetzearen ondorioz sortutako amortizazioei dagozkien gastuak eta ondasunen errentamenduari dagozkion konpromisoak dira.
D - Aurreko ekitaldietako kreditu baimendu eta xedatuen multzoa dira, kapital eta finantza eragiketetarako direnak eta, zuritutako kausa batengatik, gastua xedatu ezin izan direnak.

119. Las enmiendas introducidas en el Senado a un proyecto de ley:

A - Se incorporan automáticamente al texto de la ley.
B - Se incorporan al texto de la ley si el Congreso no recaba para sí su conocimiento.
C - Se incorporan al texto de la ley sólo si el Congreso las vota favorablemente por mayoría simple.
D - Se incorporan al texto de la ley sólo si el Gobierno no retira el proyecto.

120. Los reglamentos y ordenanzas municipales:

A - Se diferencian por su rango normativo.
B - Se diferencian por su ámbito material de regulación.
C - Se diferencian por su rango normativo y por su ámbito material de regulación.
D - No se diferencian jurídicamente en nada.

121. Un Real Decreto del Gobierno:

A - Siempre es una disposición reglamentaria.
B - Siempre es un acto administrativo.
C - Siempre es una disposición con rango de ley.
D - Puede ser tanto una disposición reglamentaria como un acto administrativo.

122. La afiliación a la Seguridad Social podrá practicarse:

A - A petición de las personas y entidades obligadas a dicho acto.
B - A instancia de los interesados.
C - De oficio por la Administración de la Seguridad Social.
D - Todas las respuestas son correctas.

123. Los créditos de compromiso son:

A - Los créditos presupuestarios destinados al pago del cupo al Estado, de la aportación a la Comunidad Autónoma del País Vasco y de la aportación a los municipios del Territorio Histórico de Gipuzkoa por su participación en los tributos concertados.
B - El conjunto de gastos de carácter plurianual, referentes a ejercicios futuros, que pueden comprometerse durante el ejercicio.
C - El conjunto de gastos que corresponden a personal, a cargas financieras, amortizaciones derivadas del endeudamiento y los compromisos relativos al arrendamiento de bienes.
D - El conjunto de créditos de ejercicios anteriores autorizados y dispuestos para operaciones de capital y financieras cuyo gasto, por causa justificada, no haya podido disponerse.

124. Noiz federa daitezke bi autonomia erkidego?

A - Soil-soilik Senatuak horretarako baimena ematen duenean, bi bostenen gehiengoaz.

B - Soil-soilik Gorte Nagusiek horretarako baimena ematen dutenean eta, betiere, zerbitzu propioak emateko eta kudeatzeko xedez federatzen direnean.

C - Estatutua aldatuz bakarrik federa daitezke, Gorte Nagusiek onartu ondoren.

D - Ezin dira inoiz federatu.

125. Garraiolarien Erregistroari dagokionez, zer xedatzen du Euskadiko 4/2004 Legeak, martxoaren 18koak, Errepideko Bidaiari Garraioarenak?

A - Administrazio-titulu gaitzaileak lortzen dituzten pertsonek dagokien foru-aldundiko garraiolarien erregistroan eman beharko dute izena. Izena ematea ezinbesteko baldintza izango da garraiolaritzan jarduteko.

B - Administrazio-titulu gaitzaileak lortzen dituzten pertsonek Autonomia Erkidegoaren garraiolarien erregistroan eman ahal izango dute izena. Izena ematea ezinbesteko baldintza izango da garraiolaritzan jarduteko.

C - Administrazio-titulu gaitzaileak lortzen dituzten pertsonek dagokien foru-aldundiko garraiolarien erregistroan eman ahal izango dute izena. Izena ematea ez da ezinbesteko baldintza izango garraiolaritzan jarduteko.

D - Administrazio-titulu gaitzaileak lortzen dituzten pertsonek Autonomia Erkidegoaren garraiolarien erregistroan eman beharko dute izena. Izena ematea ez da ezinbesteko baldintza izango garraiolaritzan jarduteko.

126. Ordainketa kredituen transferentziak:

A - Kredituak igoarazten dituzten aurrekontu aldaketak dira, hasierako aurrekontuan ezarri ez diren edo ezarritakoak baino handiagoak diren sarrerak egitearen ondoriozkoak.

B - Aurrekontu kredituen zuzkiduren arteko intsuldaketak dira, kreditu berriak sorrarazi ditzaketenak.

C - Gastuen aurrekontuaren aldaketak dira, eta aurrekontuko partida baten kreditua osorik edo zati batean murriztea dakarte, diruzaintzako soberakin negatiboa finantzatzeko.

D - Beste administrazio publiko batzuek edo pertsona natural edo juridikoek egindako ekarpenak dira, duten izaeragatik haien xede eta helburuetan jasota dauden gastuak Gipuzkoako Foru Aldundiarekin edo horren erakunde autonomoekin batera finantzatzeko jarriak.

124. La federación de dos Comunidades Autónomas:

A - Sólo se admite con la autorización del Senado por mayoría de dos quintos.

B - Sólo se admite con la autorización de las Cortes Generales y para la gestión y prestación de servicios propios.

C - Sólo se admite por reforma estatutaria, tras la aprobación de las Cortes Generales.

D - No se admite en ningún caso.

125. En relación con el Registro de Transportistas, la Ley 4/2004, de 18 de marzo, de Transportes de Viajeros por Carretera del País Vasco dispone que:

A - Las personas que obtengan los títulos administrativos habilitantes deberán ser inscritas en el Registro de Transportistas de la correspondiente diputación foral. La inscripción constituirá requisito indispensable para el ejercicio de la actividad.

B - Las personas que obtengan los títulos administrativos habilitantes podrán ser inscritas en el Registro de Transportistas de la Comunidad Autónoma. La inscripción constituirá requisito indispensable para el ejercicio de la actividad.

C - Las personas que obtengan los títulos administrativos habilitantes podrán ser inscritas en el Registro de Transportistas de la correspondiente diputación foral. La inscripción no constituye requisito indispensable para el ejercicio de la actividad.

D - Las personas que obtengan los títulos administrativos habilitantes deberán ser inscritas en el Registro de Transportistas de la Comunidad Autónoma. La inscripción no constituye requisito indispensable para el ejercicio de la actividad.

126. Las transferencias de créditos de pago:

A - Son modificaciones presupuestarias que incrementan los créditos como consecuencia de la realización de ingresos no previstos o superiores a los contemplados en el presupuesto inicial.

B - Son traspasos de dotaciones entre créditos presupuestarios, que pueden dar lugar a la creación de nuevos créditos.

C - Son modificaciones del presupuesto de gastos que suponen una disminución total o parcial del crédito asignado a una partida del presupuesto con el objeto de financiar el remanente de tesorería negativo.

D - Son aportaciones de otras administraciones públicas o de personas naturales o jurídicas para financiar con la Diputación Foral de Gipuzkoa o con sus organismos autónomos forales gastos que, por su naturaleza, están comprendidos en sus fines u objetivos.

127. Noiz egiten dute atzera interesdunek beren eskariz abiarazitako prozeduretan?

A - Administrazioak, jarraitzeko ezintasun materialagatik, prozedura administratibo bat amaitzea erabakitzen duenean.

B - Prozedura administratibo bat abiarazi duen partikularrak eskatzen duen eskubideari uko egiten dionean.

C - Prozedura administratibo bat abiarazi duen partikularrak 3 hilabeteko epea igarotzen uzten duenean, eskatu zaion izapide bat bete gabe.

D - Prozedura bat abiarazi duen partikularrak hari uko egiten dionean, nahiz eta horrek ez dion eskatutako eskubideari eragiten preskribatzen ez den bitartean.

128. Euskadiko 2/2006 Legeak, ekainaren 30ekoak, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoak, xedatutakoaren arabera, egiturazko antolamendu planak dira:

A - Hiria antolatzeko plan orokorra.

B - Plangintza orokorreko bateragarritze-plana.

C - Sektorekatze-plana.

D - Erantzun guztiak zuzenak dira.

129. Gipuzkoako diputatu nagusiak dituen eskumenen artean:

A - Batzar Nagusiak aurretiaz desegiteko eskumena dago.

B - Ez dago Batzar Nagusiak aurretiaz desegiteko eskumena, baina bai konfiantzako galdekizuna planteatzekoa.

C - Ez dago Batzar Nagusiak aurretiaz desegiteko eskumena, baina Batzarrak desegingo dira diputatu nagusiak dimititzen badu.

D - Ez dago Batzar Nagusiak aurretiaz desegiteko eskumena, ezta konfiantzako galdekizuna planteatzekoa ere.

130. Adierazi erantzun zuzena:

A - Euskara eta gaztelania dira Euskal Autonomia Erkidegoaren hizkuntza propioak.

B - Euskara eta gaztelania dira Euskal Autonomia Erkidegoaren hizkuntza ofizialak.

C - Euskara eta gaztelania dira, biak, Euskal Autonomia Erkidegoaren hizkuntza propio eta ofizialak.

D - Erantzun guztiak okerrak dira.

127. El desistimiento en los procedimientos iniciados a solicitud del interesado:

A - Se produce cuando la Administración decide finalizar un procedimiento administrativo por imposibilidad material de continuar.

B - Se produce cuando el particular que inicia un procedimiento administrativo decide renunciar al derecho que solicita.

C - Se produce cuando el particular que inicia un procedimiento administrativo deja transcurrir un plazo de 3 meses sin cumplir un trámite requerido.

D - Se produce cuando el particular que inicia un procedimiento decide renunciar al mismo, aunque no afecta al derecho solicitado en tanto no se produzca su prescripción.

128. Según la Ley 2/2006, de 30 de junio, de suelo y Urbanismo del País Vasco, es un plan de ordenación estructural:

A - El plan general de ordenación urbana.

B - El plan de compatibilización del planeamiento general.

C - El plan de sectorización.

D - Todas las respuestas son correctas.

129. Entre las competencias del Diputado o Diputada General de Gipuzkoa:

A - Está la de disolver anticipadamente las Juntas Generales y convocar elecciones.

B - No está la de disolver anticipadamente las Juntas Generales, pero sí la de plantear una cuestión de confianza.

C - No está la de disolver anticipadamente las Juntas Generales, pero esta disolución se producirá si el Diputado General dimite.

D - No está la de disolver anticipadamente las Juntas Generales, ni la de plantear una cuestión de confianza.

130. Señale la respuesta correcta:

A - Las lenguas propias de la Comunidad Autónoma del País Vasco son el euskera y el castellano.

B - Las lenguas oficiales en la Comunidad Autónoma del País Vasco son el euskera y el castellano.

C - El euskera y el castellano son, las dos, lenguas propias y oficiales en la Comunidad Autónoma del País Vasco.

D - Ninguna respuesta es correcta.

131. Gipuzkoako Foru Aldundiaren ondasunak erabilera edo zerbitzu publikora berez xedatutzat joko dira:

A - Ondasunak doan eskuratzen direnean.

B - Izatez jabari pribatuko ondasun direnak erabiltzen direnean erabilera orokorrerako edo zerbitzu publikorako, gutxienez sei hilabetez.

C - Nahitaezko desjabetzapenez eskuratzen direnean, nahiz eta soberakinak ez diren xedatutzat joko eta jabari pribatuan geratuko diren.

D - Beti espresuki xedatuko dira, Diputatuen Kontseiluaren erabakiz, ondare gaian eskumena duen departamentuko foru diputatuaren proposamenez.

131. La afectación al uso o servicio público de los bienes pertenecientes a la Diputación Foral de Gipuzkoa:

A - Se entenderá implícita cuando los bienes se adquieran a título gratuito.

B - Se entenderá implícita cuando de hecho se utilicen bienes de dominio privado para su uso general o servicio público durante el plazo mínimo de seis meses.

C - Se entenderá implícita cuando los bienes o derechos se adquieran por expropiación forzosa, si bien los sobrantes no se considerarán afectados y pertenecerán al dominio privado.

D - Siempre deberá ser expresa, debiendo aprobarse mediante acuerdo del Consejo de Gobierno Foral a propuesta del Diputado Foral titular del Departamento competente en materia de patrimonio.

132. Atzerabide ekintza:

A - Administrazioak ezartzen du partikularrek ondasun publikoei kalteak eragiten dizkietenean.

B - Herritar batek ezartzen du, Administrazioak eragindako kalteak jasan dituenean, eta erreklamazio bat aurkeztu ondoren jasotako kalte-ordaina aski ez dela uste duenean.

C - Administrazioak ezartzen du kalte-ordaina sortu duen kalte bat eragin duen funtzionarioaren aurka, baldin eta dolo edo zabarkeria astuna egon bada bere jardunean.

D - Partikular batek ezartzen du, kaltea eragin duen funtzionarioaren aurka.

132. La acción de regreso:

A - Se ejerce por parte de la Administración cuando los particulares causan daños en bienes públicos.

B - Se ejerce por un ciudadano que ha sufrido daños causados por la Administración cuando no considera que es suficiente la indemnización que obtiene tras presentar reclamación.

C - Se ejerce por parte de la Administración contra un funcionario causante de un daño que ha sido indemnizado en el caso de que este hubiera actuado con dolo o negligencia grave.

D - Se ejerce por parte de un particular contra el funcionario causante del daño.

133. Euskadiko 2/2006 Legeak, ekainaren 30ekoak, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoak, xedatutakoaren arabera, zein kategoriatan banatzen da hirigintza antolamendua?

A - Hirigintza antolamendu orokorra eta hirigintza antolamendu banakatua.

B - Hirigintza antolamendu globala eta hirigintza antolamendu sektoriala.

C - Hirigintza antolamendu oinarrizkoa eta hirigintza antolamendu mendekoa.

D - Hirigintzaren egiturazko antolamendua eta hirigintza antolamendu xehatua.

133. Según la Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo del País Vasco, la ordenación urbanística se divide en las siguientes categorías:

A - Ordenación urbanística general y Ordenación urbanística particularizada.

B - Ordenación urbanística global y Ordenación urbanística sectorial.

C - Ordenación urbanística básica y Ordenación urbanística subordinada.

D - Ordenación urbanística estructural y Ordenación urbanística pormenorizada.

134. Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergabilketa Erregelamenduaren arabera, nork ordaindu dezake?

A - Borondatezko epean edozein pertsonak, obligazioa betetzeko interesduna izan edo ez, betiere ordaintzera behartuta dagoenak horren berri izan eta onartzen badu.

B - Borondatezko epean nahiz epe exekutiboan, edozein pertsonak, obligazioa betetzeko interesduna izan edo ez, ordaintzera behartuta dagoenak horren berri izan eta onartu, nahiz horren berri ez izan eta ez onartu.

C - Epe exekutiboan, edozein pertsonak, obligazioa betetzeko interesduna izan edo ez, betiere ordaintzera behartuta dagoenak horren berri izan eta onartzen badu.

D - Borondatezko epean edo epe exekutiboan, edozein pertsonak, obligazioa betetzeko interesduna izan edo ez, betiere ordaintzera behartuta dagoenak horren berri izan eta onartzen badu.

135. Adierazi zein den aukera okerra: Administrazio Zuzenbidearen mende dauden administrazio publikoen egintzak berehala betearaztekoak izango dira, salbu:

A - Egintzaren betearazpena eteten denean.

B - Zehapen izaerako prozedura baten ebazpena denean, bide administratiboan haren aurkako errekurtsorik jarri ez badaiteke.

C - Xedapenen batek kontrakoa agintzen duenean.

D - Goragoko onespen edo baimena behar denean.

136. Zein gai izango dira administrazioarekiko auzien jurisdikzio-ordenaren eskumenekoak?

A - Aldeen artean sortzen diren gatazkak, botere adjudikatzailetzat hartzen diren erakundeen kontratu pribatuen ondoreei eta azkentzeari buruzkoak, botere horiek administrazio publikoak izan zein ez izan.

B - Botere adjudikatzailearen izaera ez duten sektore publikoko erakundeen kontratuen ondoreei eta azkentzeari buruzkoak.

C - Administrazio Publikoen kontratu pribatuen prestaketari eta adjudikazioari buruzkoak.

D - Obra publikoaren emakidarako edo zerbitzu-emakidako kontratuaren finantzaketa pribatuari buruzko gai gatazkatsuak.

134. Conforme al Reglamento de Recaudación del Territorio Histórico de Gipuzkoa, puede efectuar el pago:

A - En periodo voluntario, cualquier persona, tenga o no interés en el cumplimiento de la obligación, únicamente si la persona obligada al pago lo conoce y lo aprueba.

B - En periodo voluntario o en periodo ejecutivo, cualquier persona, tenga o no interés en el cumplimiento de la obligación, ya lo conozca y lo apruebe, ya lo ignore la persona obligada al pago.

C - En periodo ejecutivo, cualquier persona, tenga o no interés en el cumplimiento de la obligación, únicamente si la persona obligada al pago lo conoce y lo aprueba.

D - En periodo voluntario o en periodo ejecutivo, cualquier persona, tenga o no interés en el cumplimiento de la obligación, únicamente si la persona obligada al pago lo conoce y lo aprueba.

135. Señale cuál de las opciones que se exponen es falsa. Los actos de las Administraciones Públicas sujetos al Derecho Administrativo serán inmediatamente ejecutivos, salvo que:

A - Se produzca la suspensión de la ejecución del acto.

B - Se trate de una resolución de un procedimiento de naturaleza sancionadora, contra la que no quepa recurso alguno en vía administrativa.

C - Una disposición establezca lo contrario.

D - Se necesite aprobación o autorización superior.

136. Serán competencia del orden jurisdiccional contencioso-administrativo:

A - Las controversias que se susciten entre las partes en relación con los efectos y extinción de los contratos privados de las entidades que tengan la consideración de poderes adjudicadores, sean o no Administraciones Públicas.

B - Las cuestiones referidas a efectos y extinción de los contratos que celebren las entidades del sector público que no tengan el carácter de poderes adjudicadores.

C - Las que se susciten en relación con la preparación y adjudicación de los contratos privados de las Administraciones Públicas.

D - Las cuestiones litigiosas relativas a la financiación privada del contrato de concesión de obra pública o de concesión de servicios.

137. Zein da erantzun zuzena?

A - Erantzukizun mugatuko administratzaileak muga gabeko denboraldiaz arituko dira karguan, estatutuek epe jakin bat ezarri ezean. Sozietate anonimoaren administratzaileak sozietatearen estatutuek ezarritako epean arituko dira karguan; epea ez da izango lau urtekoa baino luzeagoa eta denentzat berdina izango da.

B - Erantzukizun mugatuko administratzaileak muga gabeko denboraldiaz arituko dira karguan, estatutuek epe jakin bat ezarri ezean. Sozietate anonimoaren administratzaileak sozietatearen estatutuek ezarritako epean arituko dira karguan; epea ez da izango zortzi urtekoa baino luzeagoa eta denentzat berdina izango da.

C - Erantzukizun mugatuko administratzaileak gehienez sei urtean arituko dira karguan, estatutuek epe jakin bat ezarri ezean. Sozietate anonimoaren administratzaileak sozietatearen estatutuek ezarritako epean arituko dira karguan; epea ez da izango sei urtekoa baino luzeagoa eta denentzat berdina izango da.

D - Erantzukizun mugatuko administratzaileak epe mugagabean arituko dira karguan, estatutuek epe jakin bat ezarri ezean. Sozietate anonimoaren administratzaileak sozietatearen estatutuek ezarritako epean arituko dira karguan; epea ez da izango sei urtekoa baino luzeagoa eta denentzat berdina izango da.

137. Señale la respuesta correcta:

A - Los administradores de la sociedad de responsabilidad limitada ejercerán su cargo por tiempo indefinido, salvo que los estatutos establezcan un plazo determinado. Los administradores de la sociedad anónima ejercerán el cargo durante el plazo que señalen los estatutos sociales, que no podrá exceder de cuatro años y deberá ser igual para todos ellos.

B - Los administradores de la sociedad de responsabilidad limitada ejercerán su cargo por tiempo indefinido, salvo que los estatutos establezcan un plazo determinado. Los administradores de la sociedad anónima ejercerán el cargo durante el plazo que señalen los estatutos sociales, que no podrá exceder de ocho años y deberá ser igual para todos ellos.

C - Los administradores de la sociedad de responsabilidad limitada ejercerán su cargo por seis años como máximo, salvo que los estatutos establezcan un plazo determinado. Los administradores de la sociedad anónima ejercerán el cargo durante el plazo que señalen los estatutos sociales, que no podrá exceder de seis años y deberá ser igual para todos ellos.

D - Los administradores de la sociedad de responsabilidad limitada ejercerán su cargo por tiempo indefinido, salvo que los estatutos establezcan un plazo determinado. Los administradores de la sociedad anónima ejercerán el cargo durante el plazo que señalen los estatutos sociales, que no podrá exceder de seis años y deberá ser igual para todos ellos.

138. Europar Batasunean, hauek dira Kontseiluko kideak:

A - Estatu kide bakoitzeko ordezkari bana, ministro mailakoa.

B - Estatu kide bakoitzeko ordezkari bana, gehi Batzordeko lehendakaria.

C - Estatu kide bakoitzeko ordezkari bana, gehi Europako Kontseiluko lehendakaria.

D - Estatu kideetako estatuburuak edo gobernuburuak.

138. En la Unión Europea el Consejo lo componen:

A - Un representante por cada Estado miembro, de rango ministerial.

B - Un representante por cada Estado miembro, más el Presidente de la Comisión.

C - Un representante por cada Estado miembro, más el Presidente del Consejo Europeo.

D - Los Jefes de Estado o de Gobierno de los Estados miembros.

139. Gobernuak "jardunean" segituko du:

A - Hauteskundeak izan ondoren.

B - Parlamentua desegin ondoren.

C - Parlamentua desegin ondoren, edo zentsura mozio bat aurkeztu ondoren.

D - Parlamentua desegin ondoren, edo zentsura mozio bat edo konfiantza galdekizun bat aurkeztu ondoren.

139. El Gobierno entra "en funciones" desde:

A - La celebración de elecciones.

B - La disolución del Parlamento.

C - La disolución del Parlamento o la presentación de una moción de censura.

D - La disolución del Parlamento o la presentación de una moción de censura o una cuestión de confianza.

140. Zenbat kidek osatzen dute Tokiko Gobernu Batzarra?

A - Alkateak erabakitzen duen kide kopuruak; kopuru horrek ezin du izan legean Osoko Bilkurarako ezarritako kide kopuruaren erdia gehi bat baino handiagoa (alkatea barne).

B - Legean Osoko Bilkurarako ezarritako kide kopuruaren laurdenak; alkateak izendatuko ditu, haien ordezkaritzaren proportzioaren arabera.

C - Alkateak erabakitzen duen kide kopuruak; kopuru horrek ezin du izan legean Osoko Bilkurarako ezarritako kide kopuruaren heren bat baino handiagoa.

D - Legean Osoko Bilkurarako ezarritako kide kopuruaren herenak; Osoko Bilkurak izendatuko ditu, haien ordezkaritzaren proportzioaren arabera.

140. La Junta de Gobierno Local está compuesta por:

A - El número de miembros que decida el Alcalde, sin poder superar la mitad más uno (incluido el Alcalde) del número legal de miembros del Pleno.

B - Un cuarto del número legal de miembros del Pleno, nombrados por el Alcalde proporcionalmente a su representación.

C - El número de miembros que decida el Alcalde, sin poder exceder de un tercio del número legal de miembros del Pleno.

D - Un tercio del número legal de miembros del Pleno, nombrados por el Pleno, de manera proporcional a su representación.

141. Zer ez da sektore publiko instituzionalaren parte, 40/2015 Legeak xedatutakoaren arabera?

A - Lurralde administrazioak.

B - Estatuko merkataritza-sozietateak.

C - Partzuergoak.

D - Nortasun juridikorik gabeko funtsak.

141. De acuerdo con lo establecido en la Ley 40/2015, no forman parte del sector público institucional:

A - Las Administraciones Territoriales.

B - Las sociedades mercantiles estatales.

C - Los consorcios.

D - Los fondos sin personalidad jurídica.

142. Noren erantzukizun esklusiboa da Konstituzioko 155. artikuluan aurreikusten den hertsapen estatala aplikatzea?

A - Senatuarena.

B - Gobernuarena eta Gorte Nagusiena.

C - Gobernuarena, Senatuak gehiengo absolutuaz onartu ondoren.

D - Gobernuarena, Diputatuen Kongresuak gehiengo absolutuaz onartu ondoren.

142. La aplicación de la coerción estatal prevista en el art. 155 de la Constitución es responsabilidad exclusiva:

A - Del Senado.

B - Del Gobierno y de las Cortes Generales.

C - Del Gobierno con la aprobación previa de la mayoría absoluta del Senado.

D - Del Gobierno con la aprobación previa de la mayoría absoluta del Congreso de los Diputados.

143. Konstituziokontrakotasun auziari dagokionez, organo jurisdikzionalak:

A - Planteatu beharra dauka baldin eta prozeduran agertutako alde guztiek eskatzen badiote.

B - Bakarrik plantea dezake baldin eta prozeduran agertutako alde guztiek eskatzen badiote.

C - Ezin du planteatu baldin eta prozeduran agertutako alde batek eskatzen ez badio.

D - Planteatu dezake, bai aldeetako batek eskatzen badio, bai alde guztiek bidegabetzat jotzen badute ere.

143. Respecto a la formulación de una cuestión de inconstitucionalidad, el órgano jurisdiccional:

A - Tiene que plantearla si se lo solicitan todas las partes personadas en el proceso.

B - Sólo puede plantearla si se lo solicitan todas las partes personadas en el proceso.

C - No puede plantearla si no se lo solicita alguna de las partes personadas en el proceso.

D - Puede plantearla tanto si se lo solicita alguna de las partes como si todas ellas lo consideran impertinente.

144. Noiztik hasiko da kontatzen preskripzio epea funtzionario publikoen diziplinazko zehapenetan?

A - Arau-haustea gertatu denetik.

B - Zehapen ebazpena irmo denetik.

C - Zehapen ebazpena jakinarazten denetik.

D - Zehapen prozedura ebazten denetik.

144. El plazo de prescripción de las sanciones disciplinarias de los/as funcionarios/as públicos/as comenzará a contarse desde:

A - La fecha en que se cometió la infracción.

B - La firmeza de la resolución sancionadora.

C - La notificación de la resolución sancionadora.

D - La resolución del procedimiento sancionador.

145. Zein sailkapen dagokie langile publikoei?

A - Karrerako funtzionarioak, bitarteko funtzionarioak, langile lan-kontratudun finkoak, eta behin-behineko langileak.

B - Karrerako funtzionarioak, langile lan-kontratudunak, finkoak, mugagabeak nahiz aldi batekoak izan, eta behin-behineko langileak.

C - Karrerako funtzionarioak, bitarteko funtzionarioak, langile lan-kontratudunak, finkoak, mugagabeak nahiz aldi batekoak izan, eta behin-behineko langileak.

D - Karrerako funtzionarioak, bitarteko funtzionarioak eta langile lan-kontratudunak, finkoak, mugagabeak nahiz aldi batekoak izan.

146. Kontrol ekonomiko-normatiboaren xedea da Foru Aldundiko organo eskudunek eduki ekonomikoaz emandako xedapen normatiboen fiskalizazioa egitea. Zer xedapen normatibo salbuesten dira kontrol ekonomiko-normatibotik?

A - Dirulaguntza programei buruzkoak eta, baita ere, helburu dutenak Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Aurrekontu Orokorrak, aurrekontu aldaketak eta Kontu Orokorrak onartzea.

B - Itundutako tributuak ukitzen dituztenak eta, baita ere, helburu dutenak Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Aurrekontu Orokorrak, aurrekontu aldaketak eta Kontu Orokorrak onartzea.

C - Hitzarmenak ukitzen dituztenak eta, baita ere, helburu dutenak Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Aurrekontu Orokorrak, aurrekontu aldaketak eta Kontu Orokorrak onartzea.

D - Erantzun guztiak ondo daude.

147. Zein kasutan erabili ahalko da enkante elektronikoa?

A - Soilik prozedura irekietan.

B - Soilik prozedura irekietan eta prozedura murriztuetan.

C - Prozedura irekietan, prozedura murriztuetan eta negoziazioa duten lizitazioetan.

D - Soilik kontratu txikietan.

148. 12/2008 Legeak, abenduaren 5ekoak, Gizarte Zerbitzuei buruzkoak, xedatutakoaren arabera:

A - Eusko Jaurlaritzari dagokio gizarte zerbitzuen alorreko arau garapena.

B - Telelaguntzako sistema udalen eskumena da.

C - Etxeko laguntza zerbitzua foru aldundien eskumena da.

D - Eusko Jaurlaritzak ditu babesgabezian dauden adingabeen babeserako eskumenak.

145. Los empleados públicos se clasifican en:

A - Funcionarios de carrera, funcionarios interinos, personal laboral fijo y contratados eventuales.

B - Funcionarios de carrera, personal laboral, ya sea fijo, por tiempo indefinido o temporal y personal eventual.

C - Funcionarios de carrera, funcionarios interinos, personal laboral, ya sea fijo, por tiempo indefinido o temporal, y personal eventual.

D - Funcionarios de carrera, funcionarios interinos y personal laboral, ya sea fijo, por tiempo indefinido o temporal.

146. El control económico-normativo tendrá por objeto la fiscalización de las disposiciones normativas con contenido económico, que se dicten por parte de los órganos competentes de la Diputación Foral. Se exceptúan del control económico-normativo las disposiciones normativas:

A - Que afecten a los programas subvencionales y aquellas que tengan por finalidad aprobar los Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Gipuzkoa, sus modificaciones presupuestarias y las Cuentas Generales.

B - Que afecten a los tributos concertados y aquellas que tengan por finalidad aprobar los Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Gipuzkoa, sus modificaciones presupuestarias y las Cuentas Generales.

C - Que afecten a los convenios y aquellas que tengan por finalidad aprobar los Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Gipuzkoa, sus modificaciones presupuestarias y las Cuentas Generales.

D - Todas las respuestas son correctas.

147. La subasta electrónica puede emplearse:

A - Solo en procedimientos abiertos.

B - Solo en procedimientos abiertos y en los restringidos.

C - En los procedimientos abiertos, en los restringidos, y en las licitaciones con negociación.

D - Solo en los contratos menores.

148. De acuerdo con la Ley 12/2008, de 5 de diciembre, de Servicios Sociales del País Vasco:

A - El desarrollo normativo en materia de servicios sociales corresponde al Gobierno Vasco.

B - El servicio de teleasistencia es competencia de los ayuntamientos.

